

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Amezket



Aurkibidea

Udalerria: Amezketa

Sarrera



Txindokiren ekialdeko magalean dago Amezketa. Tolosaldeko herri honek Alegia eta Orendainekin egiten du muga iparraldetik, Aralar mendizerrarekin hegoaldean, mendealdean Bedaio tolosar auzoarekin, eta ekialdean Abaltzisketarekin. Fernando Amezketarraren izena du herriko plaza nagusiak. Oriara isurtzen den Amezketa erreka zeharkatzen du herria. Euskal hiltunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 970
- **Euskaldunak:** %98,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **20**
- Zintak: **19**
- Pasarteak: **382**
- Transkribatutakoak: **11**
- Audioak: **42**
- Bideoak: **340**

Proiektuak

- Atzoko Zegama
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Teresa Agirrezabala Altuna (1935)



Amezketako Galartzegi baserrian jaioa. Bi gurasoak amezketarrak. Eskolan matematiketan iaioa, baina ez eskola zalea. [Margarita Etxeberria Murua](#) bere eskolako lagun minarekin hamaika bihurrikeria egina.

Juanito Amundarain Tolosa (1937-2023)



Amezketako Beantetxeberri baserrian jaioa. Amezketako Urkulaparte auzoan dago Juanitoren jaiotetxea, Amezketako herritik aparte samar, eta Uharteko herrigunetik hurbil. Hala ere, ingurukoek "erbestekoak" deitzen bazieten ere urkulapartearrei, bera beti amezketar sentitu da. Lanbide bat baino gehiago izan baditu ere (Agurainen morroi, igeltsero Donostian...) inoiz ez da baserriko lanetatik aparte ibili. [Joxepa Tolosa](#) rekin ezkondu eta bere jaiotetxean egin zuen bizimodua.

Anastasio Balerdi Beloki (1933)



Bedaioko Larraineta baserrian jaio bazen ere, hamar urte zituela bera eta bere familia Amezketara joan ziren bizitzera. Aita eta ama, biak zituen Bedaiokoak, bata Larraineta bertakoa eta bestea Illorretakoa, baina bera Amezketar sentitzen da, Bedaiokoa ez denik esan ezin badu ere. Hamar senidetan gazteena, udan morroi eta neguan artzain lanetan pasatu zuen gaztaroa. Txikitatik zituen ardiak gustuko, eta artzain izan nahi zuela garbi zuen. Hala, hogeita bi urterekin, soldadutzatik bueltan erosi zuen bere lehen artaldea. Geroztik artzain lanetan aritu izan da beti.

Joxepa Etxeberria Bengoetxea (1924)



Amezketako zentral elektrikoan jaioa. Hamar senidetan bigarrena. Aita Amezketako errotakoa zuen, eta ama, berriz, adunarra. Hamahiru urte zituela, bere familia aitaren jaiotetxera joan zen bizitzera. Han hiru urtez egon ziren, eta ondoren, borda bat konpondu, bizitzeko moduan jarri, eta bertara joan ziren bizitzera. Tarte horretan kolegioan ikasi zuen, eta Tolosan josten ikasten ere aritu zen. Hogeita bi urterekin ezkondu zen Abaltzisketara. Senarraren familiak taberna zuen, eta han lanean jarduteaz gain jostun gisa lanean ere jardun zuen, umeak hazi bitartean. Herriko neska gazteei josten erakusten ere aritu zen.

Ana Etxeberria Etxeberria (1922)



Amezketako Ortuzarrenea etxean jaioa. Etxekoek taberna eta pentsu almazena zuten, eta hortik bizi ziren. Aita nazionalista zuen, eta gerra garaian nahiko komeria bizitako familia da berea. Horrez gain, txikitako polio gaixotasuna izan zuen, eta herren gelditu zen geroztik. Metalezko aparatua batekin ibili ohi zen kalean zehar, eta hainbat ebakuntza ere egin zizkioten. Gerra garaiko kontuak azaldu dizkigu, bere txikitako lagun mina duen [Feli Etxeberria Galarza](#) rekin batera.

Feli Etxeberria Galarza (1926)



Amezketako Letradunea kaleko etxean jaioa. Taberna zuten bere gurasoek, bere aitonarengandik jaso. Domingo zuen izena aitonak, eta bere etxe eta tabernari "Domingoenea" deitu izan zaio. Gerra garaiko tentsioez hitz egin digu, eta baita orduko baserritarren eta kaletarren arteko harremanez ere.

Margarita Etxeberria Murua (1935)



Amezketan, eliza atzeko "Garaikoetxea" kaletxean jaioa. Etxeko gazteena eta bihurriena. Txirritak baditu bi bertso artzain bat hil zuen gizonari jarriak, eta bere birraitona omen zen artzain hori. Buruz kantatu dizkigu bertso horiek Margarik.

Margarita Goñi Zubeldia (1923-2014)



Amezketako Tomasene baserrian jaioa. Bai aita eta bai ama amezketarrak ziren. Hamalau senide ziren guztira, eta hamaika urterekin neskame joan behar izan zuen. Hemezortzi urterekin ezkondu zen. Ezkondu ondoren, mandazain aritu zen, Amezketako meatzeetan lan egiten zuten galiziarrei bazkaria eramateko.

AME-014 Hizlari ezezaguna

AME-015 Hizlari ezezaguna



Jose Iraola (1938)

Jokin



Maria Karrera Agirrebarrena (1935)

Amezketako "Lizeaga" baserrian jaioa. Herreran neskame eta Amezketako estankoan lanean aritua. Tabernara sartu izanagatik herriko apaizak pulpitutik hartu zien kargu berari eta beste neska gazte batzuei.

Axintxio Karrera Garmendia (1928)



Amezketako Arrondo auzoko Unanbide baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Abaltzisketako Olano baserrikoa. Sei senidetan hirugarrena, txikitatik izan zuen erleekiko zaletasuna. Etxean aita izaten zituen erleak, eta haiei begira orduak pasatzen omen zituen. Hala, gazterik bere kontura erle batzuk erosi eta erlezaintzan aritu izan da geroztik.

Kontxu

Joxe Mari Otermin Urtizberea (1948)



Amezketako Azintzintxiki baserrian jaioa, errege-bezperan. Aita amezketarra zuen, eta ama Hondarribikoa. Bost senidetan gazteena izanik, etxekoek ikasteko aukera eman nahi izan zioten, eta hala egin zuen berak. Sakramentinoen kolegioan hasi eta Madrilen bukatu zuen kazetaritza ikasten. Handik itzuli zenean, Loiola Irratian zortzi bat urtez lanean aritu ondoren, Euskadi Irratiko zuzendaritza hartu zuen.

Bere herriari buruzko hainbat liburu idatzi ditu, hala nola, *Amezketeta Etxez Etxe* (2011), *Fernando eta bere garaiko Amezketeta* (2010), eta *Amezketeta, bide luze bezain malkarrak* (2005).

Antonio Sagastume Saralegi (1923-2016)



Amezketako Larramendi baserrian jaioa. Guraso biak amezketarrak zituen. Bederatzi senidetan laugarrena, herriko eskola publikoan ibili zen. 12 urterekin morroi bidali zuten. Umetatik trebatu zen baserriko lanetan: lehenengo behiak gobernatzen eta gero 200 ardiko artaldearen kargu. Udan Aralarrera joaten zen ardiekin eta neguan Irunera, Bentak auzoko Maxuelazar baserrira. Gazta egiten zuen. Nafar batekin ezkondu zen, Irunera; artzaintza utzi, eta Ramon Mujika lantegian hasi zen lanean, kalderak berritzen.

Joxepa Tolosa Otamendi (1939)



Amezketako lurretan dagoen Sarobetxea "Sautse" baserrian jaioa. Baserri hau Urkulaparte auzoan dago, Amezketako herrigunetik baino Uhartetik hurbilago, baina bera erabat amezketarra sentitzen da. Donostian neskame lanetan zenbait hilabete igaro zituen, baina gainontzean beti bizi izan da Amezketan. Izan ere, Beantetxeberri baserrira ezkondu zen [Juanito Amundarain](#)ekin, eta geroztik han bizi dira biak.

Teresa Tolosa Ulazia (1932)



Amezketako Aitzio baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Loiola ("Loila") baserrikoa. Hamaika senidetan zaharrena izanik, anai-arreba gazteagoak zaintzea egokitu zitzaion.

Pello Zabala Bengoetxea (1943)



Pernandoren odolekoa, Amezketan jaio zen Pello, eta han pasatu zituen haurtzaroko lehen urteak. Aitak herriko paper lantegian egiten zuen lan eta, lagun kamioilariei esker, urtean behin Arantzazura egiten zuen txangoa bere familiak. Han gazteak jolasean ikusi zituen Pellok, eta irakurtzeko zein ikasteko gogo txikitatik izanik, arrazoi bat ala bestea medio, zazpi urterekin jakinarazi zien gurasoei Arantzazura joan nahi zuela. Aita saxofoi-jolea ere bazuen, eta txikitatik ikasi zuen solfeoa. Arantzazun zaletasun horri ere eman zion bide, musika klasikoan aditu izatera iritsiz. Fraide-etxean izan zuen kontaktua berea ez ziren euskalkiekin ere, eta bertan bizi zituen euskara batuaren inguruko eztabaidak. Han irakurri zituen Gandiagaren idatziak, eta baita musikatu ere. Ezer baino lehen, Arantzazuko frantziskotarra baitzen Pello. Bereziki, eguraldiaren inguruko gaietan aditu gisa ezaguna bazen ere, zaletasun hori berria zuen, Euskadi Irratiaren eraginez sortua eta bere kuriositateak bultzaturik landua. Bere gainerako zaletasunak, ordea, ez zituen sekula alboratu: izan musika konposatzen, izan eguraldiari buruzko gaiez idazten, izan Arantzazuko fraide gisa bere ardurak betetzen, atsedetik gabe lanean aritu zen Pello.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Milizianoak Amezketara gerra hasieran

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AME-002/003
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, ez zekiten zer zen. Milizianoak kotxez iritsi ziren eta ikara pasa zuten. Alegian zeukaten basea.

Transkripzioa

- Nik aurrena galdetuko dizkizuet... ze ya ke ta zuek izango zeaten hemen e... Atzo adibidez eon nitzanak mila beatzirehun ta hoitamaseien hoitamazazpi jayuak... E zuek gerra ondorena ondo ezautu zenuten? Ya koxkortuta. Gerra garaia're bai.

- Hemen pasa gendun hoixe gerra guzie.

- Bai, bai.

- Zer dezue goguan ordun? Nola enteatu ziñaten gerra hasi zala?

- Radiok esaten zun ta, gerra zala. Ta gerra hoi zer izan behar ote zun ez genekigun, ba. Eta, ba, hola. Gerra hasi zan, ta hasi zien etortzen zeak

kotxek. Ordun milizianok hemen zien, zeak fusillen zeak atera muturrek leihotatik.... Eta herri hau, hoi ikara baino zer da eskupetak dauzkeela zeak aterata. Eta ikara sartzea, hortaxe etorriko zien.

- Bai, Alegikok hittunan gehinak.
- Alegrin gelditzen hittunan, eta handik zabaldu herrita.
- Bai.
- Herri txikita.

1.2. Kartzelan sartzeko beldurra

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AME-002/004
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra Zibilean, edozer gauzarengatik kartzelara sartzen zuten jendea. Osaba bat errekan arrantzan ari zelako sartu zuten kartzelan. Udaletxean bertan zegoen kartzela. Beldurra pasa zuten.

Transkripzioa

- Bai. Ta ordun, eozein gauzengatio kartzelan sartzen zittuen. Ni goatzen naiz osaba bat, ezer ez, hemengo errekatoko zea zan. Ta geo, han ikusi zittuela errekatoko zea eitten, eta kartzela sartu zittuen.
- Zer egiten zuten errekatan?
- Errekan zea ai zien...
- Arrantzan?
- Arrantzan ai zien, eta han ai zielako, bai osaba beida zeon, baiño denak kartzelan sartu zittuen. Bai, hemen kartzela zeon lehen, oain ez.
- Hemen bertan zegoen? Herrin?
- Bai, hemen zeon aiuntamentun, bai, hor sartu zittuen, eta ikara bat. Bakizu ordun holako zeak eitten zien, ta ikara bat, zeatu ein gozittuela, hil ingo zittuela, ikaraz. Baiño... e hemen... Alegriko bat zeon, hemen, ta oso ezaune, eta bazeuken zea...
- Kontakton bat...
- Bai, eta harek esan zien ez, ezetz. Ezaunek zittun osaba ta, zea haundie zuen, eta hala ez zala zeatuko eta hairi zeatu zien.
- Ta hemen bertan jende asko eman zuen kartzela ordun? Herriko bertako jendia zan?
- Bai, baiño etzien... Haitxek, nik ez ditut besteik sentittu, nik kartzelan.

1.3. Herria bi bandotan banatu zen

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AME-002/005
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:06:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Zarautz, Lurdex

- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra garaian, herriko batzuk nazionalista izateagatik eraman egin zituzten. Herrian bi bandotako jendea zegoen: nazionalistak eta karlistak.

Transkripzioa

- Geo, beste batzuk e... eaman'e ein zittuen behera Joakin Galartza ta.
- Hoik zeinnek eaman zittuen?
- Kanpoko zeak.
- Bueno kanpokok, baiño zein aldetakok? Gerran hasi zien...
- Bai, nazionalistak zielako eaman zizkiñenan, bai.
- Hoixe.
- Bai.
- Bakizue, herri txiki hautan ezer ez, ba, oponiok batzuk... euskaldunen aldekok, nazionalistak, eta, bestek, karlistak. Hoik zien, bi bando hoitxek.
- Eta ordun, noski, hasi zanen gauz hau, ba, ordun gorrik zien batzuk.
- Bai.

1.4. Milizianoak herrian galderak eginez

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AME-002/006
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:44. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra hasieran, Larraitzen Nafarroatik etorritako milizianoak jarri ziren. Tabernara sartu eta galderak egiten hasi ziren. Herrian dena ongi zegoela entzun ondoren, berriro Larraitzera itzuli ziren.

Transkripzioa

- Eta... haserakon, behintzat, zean jarri ziela Larraitzen, nigoatzen naiz.... Larraitzen jarri ziela hor Naparrotiken edo zetoze la eta zeak... gorrik, bueno, milizianok. Larraitzen jarri ziela beta goitik behera etorri ziela aber ze herri zan ezautzea, eta... Guk, ordun, ze gendun... taberna. Eta taberna sartu eta jendeei galderak eitten, aber herri hau nolakoa zan, nola konpontzen giñen herritarrek, eta apaizakin ze mouz eta galderak eitten han tabernan zerenai, aizu. Ta haik ezetz herri hau herri txikie zala, eta elkarrekin ondo juten giñela, ta hemen ez zala ezer gertatzen ta. Behintzat hola. Geatu zien, ta jun zien ta kitto. Berriz ez zien azaldu.
- A bai e? Joan egin zian?
- Bai, hemendiken. Larraitzen zeudela esan zuen, zain, Naparrotik noiz etorriko zien zeak... nazionalak.

1.5. Soineko hori-gorria tapatuta eramaten zuen

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AME-002/007
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Soineko horiak marrazki gorriak zituela konturatu zenean, Felik tapatu egiten zuen, zerbait esango ote zioten beldurrez.

Transkripzioa

- Ni goatzen naun soiñeko horie niñenan, eta hemen gorri, zea, dibujo batzuk zeuzken. Hoi zer... tapatuta ikaraz!
- Kolore espāñolak.
- Bai, tapatuta, bai haik, aizu! Bai, haik... dibujo haik tapatuta zeatiken... kontxo! Nazionalak eta... kontxo! Zeozer eingo ote ziteen, holako, holakoxe zeak burun pasatzen, bai.
- Ta hemen soldaduk eta pasatzen ta ikusi zenituen?
- Ez.
- Bai.
- Etorri al zien ba?
- Bai.
- Soldaduk, aber, esan zan.
- Bai, Alegrikok diela esan ziñenan, Alegrikok ziela, baiño etorri ta ni goatzen naun ne anai txikie kolgadoran zeon. Nik'e taberna neuken, guk'e... Ta hartu, hure jantzi ta segi.

1.6. Nazionalistak eta karlistak Amezketan

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AME-002/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:10:43. **Bukatu:** 00:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Herrian bi bando zeuden: nazionalistak eta karlistak. Karlistak jauntxoak ziren eta gero agintean jarri ziren. Nazionalistak zigortu egin zituzten.

Transkripzioa

- Bai, bai. Bai.
- Ta gaiñantzian, gerraz daukazuen beste rekuerdok hoiexek edo nola... etzan eon soinuik eta bonbardeaketaik eta tiro hotsik eta?
- Ez.
- Ez hemen ez zan holako zeaik eon.
- Hemen gorrie, gorrik pasa zien, zeak in eskubikin, noski, herrin, bi zea, bi partidu esango genuke; nazionalistak eta karlistak, kitto. Eta geo, hor zeon

hoiri denuntzie sartu ta, geo, izan zien komerik.

- Bai, bai.

- Geo, ze izan zan, ba, denuntzia?

- Karlistak eta nazionalistak, eta bakizu karlistak zien jauntxok, gerra haik hasi zuen, eta beak jarri zienen, ba, hemen... bueno beak jarri. Herrie beak zeuken, been esku. Ordun, beste nazionalista guztik gaiztok zien, eta haik izkutatu, kastigatu... ein behar zuen. Eta ordun, izan zan jaleoa, ni goatzen naizena, etxekoa baitauket.

- Bai.

- Gu aitte, ba, nazionalista izan, eta zenbat gauz ein zizkioen, bueno, multe. A, multe aiuntamentun patu zien. Herri guzin nazionalistaei jarri zitzaizkienak.

- Gu ez batea eta ez bestea, ez giñen.

- Zuek karlista aldekok. Bueno, berdin zaion. Guk ordun karlistaz eta nazionalistaz zer genekiu, baiño hau etorri zanen, ba, ordun bandok ein zien e! Ordun jakin zan zein nola zien. Bueno, bueno... hoi lehenago botaziok ziela, eta alde batekok eta bestekok ibiltzen zan burruka hoi. Baiño, kitto, horrekin bukatzen zan hemengo politika. Baiño ordun, ia partittu, ia zein zien euskal aldekok eta liste hartu danana eta nazionalista guztiri multa, ta hure ordaintzea aiuntamentua. Eta jendea... diru eta ezin zuenak eta nolabaitte bildu eta... batzuk ordun aittu non eziñen ibilli ziela, gaixok.

1.7. Nazionalistei jarritako zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: AME-002/010
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:13:37. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Isuna ordaintzeaz aparte, biltegia konfiskatu zieten nazionalista izateagatik. Pentsua ezin zuten saldu; eta, galtzen ari zitzaenez, aita agintariekin hitz egitera joan zen.

Transkripzioa

- Eta... ordun, nik etxekoa dakit. Gu aittei bostehun peztako multe, "por nacionalista", bai. Eta gero, ondoren, bagendun almazena pentsuna, pentsuk'e saltzen genittun. Eta etorri zien reketek, eta almazena inkautatu ziguen. Inkautatu, han gehio ezer ez saltzeko handik. Ta zenbat zaku, dena eaman zuen liste. Bueno, eta, gero, etortzen zien, ba, pentsu eske ta: "ez ba itxie daukeu, ez dauke saltzeik". Ta hola, denboa pasa, denboa pasa... Ezer ez kasoik eitte ez, ta, ordun, gue aittek: "buena zertan gare? Pentsue ya hondatzen...". Eta bea jun zan... Ez dakit zeñekin. Jende hoita. Ez dakit. Bakarrik jun zan esatea, mesedez, ein behar zuena eitteko, pentsue galtzea zijoala. "A, bueno, oso ondo". Ba, pentsu horrek hainbeste balio zula eta hure ordaintzeko bai eta saltzeko. Hala saltzen hasi giñen pentsue. Ta, ze lanak etorri zitzaizkigun. Gorrik zienen defendittu ein zittuen. Hemen ez dala ezer'e pasatzen, danak ondo konpontzen giñela. Ta geo, bestekin, berriz, hola.

1.8. Karlista sartu zen bederatzi urte zituela

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AME-002/012
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:16:14. **Bukatu:** 00:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena:** Anak aita karlista zuen eta bera ere karlista egin zen. Alegiatik etorritako batek instrukzioak erakusten zizkien. Ana karlisten egoitzara joaten zen. Behin Orendainera eraman zituzten eta ondoren Alegiara zinea ikustera. Gustura ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Ze kontuak?
- Multek.
- Ta multak nola erabakitzen zuen zeini jarri? Holaxe. Aittu nazionalista zala, ta beai?
- Bai, hemendik eaman'e ein zittuen nazionalistak ziela ta.
- Eaman?
- Bai, Joakin Galartza, zea Joanin aitte.
- Zein Juanin?
- Joani, ne koiñatan aitte. Joanita, Joani! Harren aitte're eaman ziñenan, bai.
- Nazionalista zalako?
- Bai, nazionalista zalako, ta besteik ez dakit zein, holaxe eaman ein zittuen.
- Bai, hemen zigortuk nazionalistak izan zien. Bestek zien nagusi, eta, ordun, nahi zuena eitten zuen.
- Baiño gu aitte ez hunan karlista. Gue aitte eze... ezta, ni sartu niñuñan karlista.
- Hi sartu al hintzenan?
- Beatzi urte edo ez zekiñet zer non, ta nunbaitte zatu behar ta... karlista.
- Ze umentzako eoten zian taldek ordun karlistanak eta hola?
- Bai. Ta ordun, geo muti koskorrak hemen ze...karlistak etortzen zien. Alegitik etortze hunan gizon bat, eta zea, instrukziok eakustea ta, aitonak eta denak e... zea... instrukziok eakustea.
- Instrukziok ze izaten zian ba?
- Zea, gerrako zea...
- Soldadu ikastea.
- A....
- Bai, aitonak eta dena! Bai.
- Han juten zian?
- Bai, bai juteko...
- Ta zu're hor ibili ziñan?
- E?
- Zuk'e hoiein zendun?
- Bai, guk ze joaten giñen karlistan, zea, lokalea ta umen zea, baten Orendañea eman giñuzen, eta, geo, handik Alegria, zea... e... zea ikustea... zine bat bota ziguen, eta hure ikustea. Ta gustoa.
- Txoatzen.
- Hoixe..

- [... kalistak zian].
- Gu ez, gu ez giñun han ibilli. Bildurrez ibilli giñunan beti. Gu bildurrez beti.

1.9. Falangekoak kalean agurtu behar

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: AME-002/013
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:18:05. **Bukatu**: 00:20:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Mutil koskorak Falangekoekin instrukzioa ikasten ibiltzen ziren. Falangekoak pasatzen zirenean, denek agurtu egin behar izaten zituzten. Errizino-oltoa hartzearekin egiten zen mehatxu.

Transkripzioa

- Holaxe.
- Ta Amezketa jende asko... separaziok eta eongo zian ordun, familik eta anai bat alde bateko eta bestea besteko ta...
- Bai.
- Hoixe, hoixe.
- Baiño, puff, pasa.
- Bai.
- Ni goatzen naun zeakin, mutil koskorak instrukziok eitten gora ta behera...
- Bai!
- Baiño falangekin. Meikun aittona txiki bat bahunan, hure hunan falangekoa. Eta instrukziok eitten eta kanpotik etortzen hittunan, instrukziok eakustea, gora ta behera hor ibiltzen zien.
- Nundik etortzen zien?
- Hemen bizi zien.
- Ez dakit nondik.
- Bai.
- Haik bai, baiño haik beak ez hittunan ibiltzen eakusten, kanpotik etortzen hittunan falangistak.
- Baiño euskaldunek zien kanpotik etortzen zienak edo erderaz eitten zuen?
- Erderaz eitten ziñenan.
- Erderazkok, bai.
- Baiño deskuidon haik zean baldin bazien.... kaleen, gu hain zea eitten jarri behar gendun baztarren eh!
- Saludoa?
- Baai. Ta kantatu, haikin batea, bai.
- Herri guztiak ein behar izaten zun?
- Ez, tokatzen zitzaion hai. Konparazio, gu biok tokatzen al giñen, e? Ta hain zea ein behar gendun. Bai, beharko.
- Hoi ez zitzaiten nei eokittu.
- Baai.
- Ta zer kantatzen zan 'Cara al Sol'?
- Ba klaro, haina.

- Falangista.
- Falangistana, beharko. Goatzen naun... zu..., zea, hemen neska bat... ez dakit haserretu eingo giñen, edo, hure zea zan, alde batekoa eta ni bestekoa eta: "bai esango zionat eta azeiterezino hartu aziko diñe".
- Bai zea?
- Bai.
- Hoi zuri amenaza?
- Bai, hemengo neska batek, hangoa zan.
- Hangoa, Alegrikoa?
- Ez, falangekoa. Eta ordun, azeiterezino hartu azitzen zuen nonbait eta," ikusikon e, ikusikon, esan eingo zienat, eta azeiterezino hartu beharkon".
- Baiño hoi zeñek hartu behar izaten zuen, zigor bezela jartzen zienak?
- Bai, bai. Bai.

1.10. Errazionamenduko janarien zain

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: AME-002/014
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:20:52. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Gerraostean, udaletxean errazionamenduko janariak banatzen zituzten. Ilaran egoten ziren zer emango ote zien zain. Ez zuten beldurrik pasa baino belarriak jaitsita ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Ta geo, aiuntamentun, berriz, zea... zeatzen, ba, Jesus, ordun han zea ematen zuen, janarie ta...
- Non ematen zuen?
- Aiuntamentun.
- Razionamentukoa?
- Razionamnetukoa, zea, ta hantxe juten giñen, zai zer emango ziguen eta holaa.
- Baiño razionamentue dendata...
- E?
- Dendata, ez jendei partikular.
- Hor partitzen zieñeñan.
- Partikular? Hola jendeei?
- Bai.
- Dendata uste niñan, razionamentuk saltzeko ematen zuela.
- Ez hor ematen ziñenan, aiuntamentun azpin. Ta hantxe errenkan jarrita, hantxe eoten giñuzenan, bai, bai.
- Ta bildurrik edo izaten zan kalia, gehyo nazionalistan aldetik igual, baiño bildurra izaten zan?
- Ez.
- Bakoitzek ahal zuna ein, errendittu, eta segi aurea, belarrik jeitsita hortxe.
- Ahal zan ixillena pasa ta.
- Pasa, pasa.

1.11. Karlistek emandako agiria autobusean joateko

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Galarza, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: AME-002/015
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:23:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria Zarautz, Lurdex
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Gerra Zibila zela-eta, autobusean joan behar zuten gizonak karlistek emandako agiri bat behar izaten zuten. Tranpak ere egiten zituzten.

Transkripzioa

- Ta geo, ordun, zea batea ematen hunan, autobusen eta jun behar zuen gizonak edo zeak, ba, zea
- Txartelan bat.
- Bai.
- Agirie.
- Agirie zeana... karlistana
- A bai?
- Karlistana usteñet bai.
- Eman behar izaten zuen autobusen ibiltzeko?
- Bai, bai. Ta ni goatzen naun, zea, botoiak da, zea ein koloretan, ein ta hala. Nire osaba're zea txoferra zan, autobusekin ibiltzen zan, ta mordoxka bat einda eukitzen nun.
- Ez zekanai jartzeko?
- E?
- Ez zekanak erabili ahal izateko?
- Bai, bai, bai. Holakoxe zeak, ixtorik.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Matematikako etxeko lanak kopiatzen harrapatu zituztenekoa (AME-001/002)

Txikitatik ezagutzen dute elkar. Ezkondu aurretik, haurtzaroa eta gaztaroa elkarrekin igaro dituzte. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskola banatan. Hala, gogoan dute nola behin mutilen eskolako bat etorri zitzaion irakasleari kontatzera matematikako lanak kopiatzen harrapatu zituela.

2. Ormaiztegiko maistrari egindako bihurrikeriak (AME-001/003)

Ondo gogoan dute umetan izan zuten Ormaiztegiko maistra. Etxerako lanak elkarrekin egiten edo dotrinako orduan pilotan jolasten harrapatu zitueneko pasadizoak dakartzate gogora. Gaur egun barre egiten duten arren, gorriak ikusitakoak direla kontatzen dute.

3. Eskolak gaztelaniaz hitz erdirik jakin gabe (AME-001/004)

7 urterekin hasi ziren eskolan. Dena gaztelaniaz zen baina beraiek ez zekiten hitz erdirik ere. Arratsaldean laborea egiten zuten.

4. Piper egin zuen aldi bakarrean, harrapatu egin zuten (AME-001/006)

Piper egin zueneko pasadizoa kontatzen du. Segituan harrapatu zuten ordea; mandatu bat egiteko beharra suertatu eta haren galdezka deitu zuten eskolara. Maistraren beldur, eskolara bueltatzeko ikaragarritzko beldurra izan zuela dauka gogoan.

5. Ormaiztegiko maistraren jaka granatea (AME-001/009)

Ormaiztegiko maistra zuten eskolan. Trenez etortzen zen astelehen goizetan. Irakaslearen umorea zein zen jakiteko, nahikoa zuten zein jaka zeraman ikustea. Granate kolorekoa zekarrenean, seinale txarra izaten zen. Ez zuten asko maite irakasle hura.

6. Dotrina euskaraz Don Manuel apaizarekin (AME-001/011)

Dotrinari buruzko azalpenak. Batzuetan meza entzun eta besteetan, dotrinari buruzko azalpenak ematen zizkietela diote. Liburuko pasarteak buruz ikasi behar zirela kontatzen dute. Don Manuel apaizak euskaraz ematen zien dotrina eta neska-mutilak elkarrekin egoten ziren.

7. Gurutze Bideko gaiztakeria (AME-001/012)

Gurutze Bidean, mutiko batek apaizari sotana altxatu zionekoa kontatzen du, uste baitzuen aurrenekoak irteten Margarita eta haren laguna izango.

8. Umetako jolasak: Txingoketan (AME-001/013)

Neska eta mutil, elkarrekin jolasten zuten ume zirela. "Txingoketan" nola jolasten zen azaltzen du.

9. Herriko jaietan dantza suelta plazan (AME-001/014)

Herriko plazan, edo Kontzeju azpian, euria bazen, antolatzen ziren dantzaldiak herriko jaietan. Alegriko (Alegiako) Txanbolin etortzen zen soinua jotzera. Margaritaren senarra ere ibiltzen zen soinujole lanetan. Sueltoan aritzen ziren; Kongregazioko kide izaten jarraitu nahi bazenuen, ezin zen dantza lotua egin.

10. Amezketako "elbik" Alegiakoen eta Zaldibiakoen isekei erantzuten (AME-001/015)

Beti egon da nolabaiteko lehia Alegiako, Zaldibiako eta Amezketako herritarren artean. Amezketarrei "elbi" esaten zaie, eta hori dela eta burla ugari entzun behar izan dituzte.

11. Azkarateko jaietan ateratako argazkiak (AME-001/016)

Ez ziren kanpora inora ateratzen, uztailearen 7an Azkarateko (Nafarroa) jaietara izan ezik. Han ateratako argazkia erakusten dute. Kartoizko hondo bat jartzen zuen argazkilariak. Irudi desberdinak izaten zituen aukeran, eta momentuan ematen zizun argazkia. Mutilak zirela argazkiak ordaintzen zituztenak: neskek bi kopia eskatzen zituztela kontatzen du, bat mutilari oparitzeko eta bestea beraientzat gordetzeko, horrela ordaintzetik libratuz.

12. Taberna barruan sartzea galarazita zuten emakumeek (AME-001/017)

Tabernara sartzea galarazita zutela kontatzen dute. Mutilek zerbait hartzera gonbidatuz gero, kanpora ateratzen zieten edaria eta kanpoan edaten zuten. Taberna batean sartzen baziren, ospe txarra hartzen zuten, emagaldutzat zituzten.

13. Neska-laguntzea apaizaren aurretik (AME-001/019)

Neska-laguntzeari buruz dihardute. Apaizen etxea zuen aldamenean Margaritak eta zaila zuen senargaiarekin kontu batzuk esatea antza. Etxera iritsi orduko, "ondo lo egin" esan eta alde egin behar izaten zuen honek. Teresak bazuen atzeko bidetik joatea baina, hura egitea ere gaizki ikusia zegoenez, apaizaren etxe aurretik pasatzen zela kontatzen du.

14. 25 urterekin, neskazahar (AME-001/020)

25 urtetik aurrera, emakume ezkongabea "neskazahar"tzat hartzen zen.

15. Estraperloko irina (AME-001/021)

Irina Nafarroatik estraperloan ekartzen zuen Margaritaren aitak. Telefonoz ematen zieten Guardia Zibilaren miaketen berri eta, haiek etortzerako, ezkutatu egiten zituzten estraperloko irin zakuak. 13 urteko mutila Nafarroako herri batera irinetara bidali zuteneko kontakizuna ere kontatzen du

16. Makiak Aralarreko bidean (AME-001/024)

Aralarreko bidean zegoen borda batean, artzain batek aurkitu zituen Makiei (erresistentziako gerrillariak) buruzko kontakizuna. Nafarroara igarotzeko bidearen bila, ihesean zebiltzan Guardia Zibilarekin topo egin zutenean. Bi hil zituzten tiroka. Kanposantura ekarri zituzten haien gorpuak baina ez zituzten bedeinkatutako eremuan lurperatu, aparteko "kondenatuen" eremuan baizik.

17. Ardiak lapurtzen zizkion soldaduak hil zuen Margaritaren birraitona (AME-001/025)

Hernanin erail zuten Margaritaren birraitona 1885. urtean. Ardiak lapurtzen ari zitzaion soldaduak tiroz hil zuen, kargu hartzera joan zenean. Handik urte batzuetara, Txirritak botatako bertsoak botatzen ditu Margaritak. Aita Zabalak jaso zituen liburu batean.

18. Komunio-handian aureskua eta soka-dantza (AME-001/028)

Komunio handia egiten zenean, aureskua eta soka-dantza dantzatzen ziren Amezketan. Dantzari buruzko azalpenak ematen ditu Margaritak.

19. Amezketako jaiak abuztuaren 24an (AME-001/029)

Abuztuaren 24an ospatzen dira Amezketako jaiak. Bezperaz hasten ziren ospakizunak dianarekin. Meza nagusirako prestatzen ziren ahal zuten dotoreen. Bertsolariak, pilota partidua, aizkolariak... jaien inguruko azalpenak ematen dituzte. Afaltzera etxera joan eta iluntzean festara bueltatzeko, izeba ezkongabearen babesa bilatzen zutela kontatzen du.

20. Festetarako dotore jantzi beharra (AME-001/031)

Herriko jaietarako oso gogoko zuten dotore jantztea eta, aukera izanez gero, arropa berriren bat ere estreinatzen zuten. Horren adibide da Margarik kontatzen duen anekdota, zapatak erosi ahal izateko oilasko zaharrak merkatuan saldu zituenekoa.

21. Amezketako Talai-dantza (AME-001/034)

Talai-dantza Amezketa eta Bedaion Inauteri igande eta astelehenean mutilek dantzatu ohi zuten makil-dantza da. Etxez etxe ibiltzen ziren.

22. Astoa hartu eta gari edo esne karreoan (AME-001/036)

Bi errota zeuden Amezketan. Mariak garia errotara eramaten zuen asto gainean, neska koskorretan askotan. Lau kilometro inguruko bidea zuela kontatzen du. Esnea etxez etxe banatzen ere ibiltzen zen goizean goiz.

23. Baserriko lanak, eskolaren gainetik (AME-001/037)

Baserrian lana ez zen inoiz falta, eta gehienetan horrek lehentasuna izaten zuen eskolara joatearen aldean. Mariak gogoan du baserrian lanean geratu beharrak amorrua ematen ziola, iruditzen baitzitzaion eskolako lagunak ikasketetan aurrera egiten ari ziren bitartean bera atzean geratzen ari zela. Gaztainak biltzera joan zeneko anekdota bat kontatzen du, non astoak gainean jarri nahi izan ziren pertsonak bat lurrera bota zituen.

24. Astoari ez jarraitzeagatik galdu zen mendian (AME-001/038)

Aitari mendira bazkaria eramateko, beti eskuineko bidea jarraitu behar zuela esan zion amonak baina astoak ezkerreko bidea hartu nahi zuen. Mariak amonari kasu egin eta ondorioz galdu egin zela kontatzen du.

25. Senideetan gazteena eta mimatuena zen Margari (AME-001/040)

Senide zaharrek zuka egiten ziotela dio Margarik (senideetan gazteena), berak ordea, hika egiten zieten haiei. Mariak, guztiekin hika egiten zuela dio. "Amabirjin arrastoan" behera (izenaren zergatiaren azalpenak ere ematen dituzte) aita zetorrela ikusi eta etxean ezkutatu zeneko kontakizuna dakar Margarik. Senide zaharrenek aitari egindako gaiztakeriaren berri eman baina zigorraz nola libratu zen kontatzen du barre artean.

26. Igandeko 11:30etako meza, artzainen elkargunea (AME-001/041)

Igandero, 11:30ean, propio izaten zen meza artzaintzat Amezketan. Margariren aita etxera etortzen zeneko unea zen, eta gogoan du beti frutaren bat edo zerbait ekartzen ziola. Zoritxarrez, Margarik 11 urte besterik ez zituenean hil zen aita.

27. 3R filma Leidorren eta bekatua aitortzera (AME-001/044)

Leidor zineman "3R" filma ikustera joan ziren behin Margari eta senarra. Konfesatzeko orduan, herriko apaizarengana joan orde, San Frantziskoko fraideengana joatea erabaki zuen badaezpada ere. Margariren ustez, ez zuen bekaturik egin, pelikulan ez baitzen ezer ikusten, baina fraideak beste modu batera ikusi zuen kontua.

28. Aitorlekuaren beldur: dena zen bekatu (AME-001/045)

Aitorlekuari eta apaizari kontatu beharreko kontuak. Beldurrez egoten zirela diote, infernu eta bekatu kontuak baino ez zituztelako entzuten

29. Neskame izatetik herriko estankora (AME-001/046)

Herreran ibili zen lau urtez neskame Maria. Gazteleraz hitz egiten ez zekien hartan. Anaia soldadutza egin behar zuelako itzuli behar izan zuen etxera. Herriko estankoan jardun zuen gero lanean. Denetik egin behar izaten zuen estankoan.

30. Aita kartzelara sartu nahi izan zuten (AME-002/016)

Gerra sasoian, etxean pasatakoak dira gogorrenak. Aita kartzelara eraman zuten. Militarrek nola sartu ziren gogoratzen du. Falangistek herriko zenbait gizon biltzeko agindua eman zuten eta denen artean dirua biltzeko zigorra ezarri zuten. Azkenean, libratzea lortu zuten.

31. Eskolan erdaraz ezin ulertu (AME-002/020)

Gerra hasi zenean, erdaraz gutxi zekiten. Eskolako maistra kanpotarra zen eta erdaraz erakusten zien. Erdaraz idatzitakoa ez zuten ulertzen eta horrek arazoak sortzen zizkien. Azkenean herriko maistra bat edukitzea lortu zuten eta orduan gusturago ibili ziren.

32. Herrian gutxi batzuk erdaraz zekiten (AME-002/021)

Erdaraz maistrak, apaizak, medikuak eta horrelakoek zekiten.

33. Eskolan neskak eta mutilak banaturik (AME-002/022)

Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskolan, denak udaletxeko lokaletan baina banatuta. Maistraren alabarekin erdaraz zerbeit ikasi zuten.

34. Saltoka ibiltzeko abestiak (AME-002/023)

Eskolatik atera ondoren, jolasean ibiltzen ziren, sokasaltoan. Saltoka abesten zituzten kantak nolakoak ziren gogoan dituzte.

35. Txikitako jolasak (AME-002/024)

Tortolosean ibiltzen ziren plazan. Ezkutaketan ere bai. Herri osoan zehar jolasten ziren. Txikitako anekdotak kontatzen dituzte.

36. Erretorea kartzelan sartu zuten (AME-002/025)

Elizako erretoreak gerra hasieran alde egin zuen karlista zelako; haren etxeari sua emango ziotela mehatxu egin ziotenean, itzuli egin behar izan zuen. Orduan kartzelan sartu zuten. Komunio Handiko egunean, Larraitzera txangoa egiteko asmoa zuten eta ezin izan zuten erretorea kartzelan zegoelako.

37. Dotrina euskaraz ikasten zuten (AME-002/026)

Garai haietan, hiru apaiza ziren herrian; eta, bat kartzelan sartu zutenean, besteak eman zien komunioa. Dotrina jakin behar zen komunioa egiteko. Dotrinako ikasteko txartelak euskaraz izaten zen.

38. Elizan bakoitzak bere lekua eta argia (AME-002/027)

Jai goizero mezara joaten ziren eta bakoitzak bere lekua zeukan, norberak eramandako aulkietan. Bakoitzak bere argia ere pizten zuen. Oraindik ere argiolak badituzte. Apaizak aldareari begira ematen zuen meza.

39. Gerra ondorengo janariak (AME-002/028)

Gerra ondoren aita Nafarroara joaten zen eta handik jakiak ekartzen zituen. Baba beltzak ekartzen zituzten. Ogia ere etxean egiten zuten. Zegoena jaten zuten. Kalekoek okerrago pasa zuten baserrikoek baino.

40. Janariak gordeta (AME-002/029)

Dendan freskera zeukaten, bodega antzekoa, janariak gordeta edukitzeko. Kanpotik ekarritako janariak ezkutatu egiten ziren.

41. Gerra ondorengo janariak (AME-002/030)

Postrea zen luxu handiena, esne-arrautza edo horrelakoren bat. Irina erosi behar izaten zuten. Babarrunak asko jaten zituzten, txerria ere bai, nahiz eta kalean bizi. Txorizoak ere etxean egiten zituzten. Meriendako txokolatea izaten zuten.

42. San Bartolomeak Amezketan (AME-002/032)

Amezketako festak San Bartolomeak izaten ziren. Gerra denboran ez zen festarik izan. Ttun-ttun jotzailea Alegiatik etortzen zen. Musika plazan izaten zen eta dantzan ibiltzen ziren.

43. Medikua, farmazia eta etxeko sendagai naturalak (AME-002/035)

Amezketako medikua ez zen bertakoa. Medikuak esaten zuena egiten zen. Ez zeuden gaur bezalako botikak. Farmazia Alegian zegoen. Etxean bazituzten sendagai naturalak. "Aceite de hígado de bacalao" ematen zien eguerdiro.

44. Aprobetxatutako ehunekin soinekoak egiten zituzten (AME-002/038)

Trapuz egindako manta antzeko batzuk erabiltzen zituzten oheak tapatzeko, "koltxilak" deitzen ziren. Jostunek arropak aprobetxatuz beste batzuk egiten zituzten. Maindireak tindatuta ere soinekoak egiten ziren. Bi soineko izaten ziren gutxienez, bat astegunerako eta bestea jaiegunetarako. San Bartolometan soineko berria estreinatzen zuten.

45. Arropak eta oinetakoak konpondu egiten ziren (AME-002/039)

Elizara joateko soinekoari gainean zerbait jarri behar izaten zitzaion besoak tapatzeko. Belaunetik beherakoak izaten ziren. Arropak puskatu arte erabiltzen ziren. Oinetan berriz alpargatak. Dena konpondu egiten zen. Zapatak elizara joateko izanzen ziren.

46. Artzain andrez jantzita Gabonetan (AME-002/040)

Jertseak etxean egindakoak izaten ziren. Artilearekin galtzerdiak egiten ziren, artzain andrez jantzeko. Eguberrian eskera joaten ziren. Orduan abarkak janzten zituzten. Eskera kuadrillan joaten ziren. Eskean joandako etxean hildakorik bazen, abestu ordeztu, otoitza egiten zuten.

47. Gabonetako abestiak eta ohiturak (AME-002/041)

Gabonetako abestiak gogoan dituzte oraindik. Orduan ez zegoen Olentzerorik. Erregeei zapata jartzen zioten. Mazapanezko aingirak jaten zituzten.

48. Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen (AME-002/043)

Dirurik ez zuten izaten. Emakumeak taberna sartzea gaizki ikusia zegoen. Horretara ohitu zirenez ez zuten sartzeko gogorik ere.

49. Igande arratsaldeak (AME-002/044)

Igande arratsaldero, "bezperetatik" atera ondoren dantza izaten zen. Baserritakoak azkar bueltatu behar izaten ziren eta mutilak nesken atzetik joaten ziren.

50. Neskame eta morroi gehiago lehen (AME-002/047)

Amezketan 1.500 biztanle omen ziren. Ume asko izaten ziren garai hartan. Askok neskame edo morroi joan behar izaten zuten. Feli eta Anak etxean neskamea zuten.

51. Zaldiek tiratzen zuten autoa zeukan aitonak (AME-002/050)

Orain auto asko dago Amezketan. Aitonak autoa bazuen, zaldiek tiratutakoa. Garaiko argazkia gordetzen dute.

52. Etxeko argia eta ura (AME-002/051)

Etxean ez dute beti ezagutu izan ura. Errekatik baldetan ekartzen zuten ura. Argia berriz erroetatik etortzen zitzaion, iluntzen zenean pizten zen. Argia joaten zenean petrolio-kriseilua erabiltzen zuten.

53. Donostiara urtean behin (AME-002/052)

Telefonoa udaletxean zegoen. Urtean behin Donostiara joaten ziren. Egun batean trena galdu zutelako Donostiako lehengusuen etxean lo egitea pentsatu zuten eta udaletxeko telefonora deitu zuten. Gustura egon zirenez handik aurrera urtero egiteko ohitura hartu zuten. Igeldora eta Akuariumera ere joaten ziren. Barraketan ere ibiltzen ziren.

54. Urkulaparte auzoa, Amezketetik urrun (AME-003/002)

Amezketako Urkulaparte auzokoak dira biak. Herritik nahiko urruti dago eta bideak txarrak izaten ziren.

55. Eskolara Uhartera eta dotrinara Amezketara (AME-003/003)

Amezketako Uharte auzora joaten ziren elizara eta eskolara. Dotrinara Amezketara joan behar izaten zuten.

56. Maistra erdaldunak euskaraz ikasi zuen (AME-003/004)

Eskolara Uhartera joaten ziren, neskak eta mutilak elkarrekin. Berrogei bat haur ziren eskolan eta maistra bakarra. Neskei josten erakusten zieten. Eskolan ikasi beharrekoak ez ziren ikasten. Maistra erdalduna zen baina euskaraz hitz egiteko debekurik ez zeukaten. Maistrak euskara ulertzen bukatu zuen. Eskolan, irakurtzen, idazten eta matematikak ikasi zituzten.

57. Ikasle finenak maistratik gertu (AME-003/005)

Eskolan binaka jartzen zituzten eta ikasleen jakintza-mailaren arabera maistratik gertuago edo urrutiago jartzen zituzten. Joxepa arratsaldetan bakarrik joaten zen eskolara, baina Juanito egun osoz. Amak seme-alabak eskolara joatea nahi zuen.

58. Amak seme-alabak eskolara bidaltzen zituen (AME-003/006)

Juanitoren amak, seme-alabak eskolara joatea nahi zuen baina normalean umeak ez ziren beti joaten eskolara, baserrian lagundu behar izaten zutelako. Orokorrean, mutilei ikasketa gehiago ematen zitzaien.

59. Amezketako auzoen artean pikeak (AME-003/008)

Ugarten ikasten zuten eta Amezketako haurren artean pikea zegoen. Ugartekoei "amoarrainak" deitzen zieten eta Amezketakoei "zapoak".

60. Denak baserritarrak ziren (AME-003/009)

Eskolan denak ziren baserritarrak. Ugarten bertan bizi zirenek gaztelania piska bat hobeto egiten zuten, gehiago entzuten zutelako.

61. Ikasle bakoitzak arbelatxo bat zuen (AME-003/010)

Ikasle bakoitzak arbelatxo moduko bat izaten zuen, bide bazterrean lortutako harriarekin egina. Kalitate onekoak izaten ziren. Arbelak nola egiten zituzten kontatzen dute.

62. Eskolako materialak: luma, lapitza, zorrozgailua, arbela... (AME-003/011)

Eskolan luma ere erabiltzen zuten eta punta aldatu behar izaten zitzaion. Tinta eskolan egoten zen. Arkatza ere erabiltzen zuten. Zorrotzgailuari "zapoa" esaten zioten, forma hori zuelako. Bakoitzak arbelatxo bat zuen, "pizilloa" ("pizarrilloa) deitzen ziotena.

63. Eskolako "kartila" eta katona (AME-003/012)

Eskolan erabiltzen zuten liburuari "kartila" deitzen zioten. Katona ere erabiltzen zuten: bertan esaldiak egoten ziren eta buruz ikasten zituzten. Juanitok etxean ikasi zuen irakurtzen, amarekin eta ahizpa nagusiarekin.

64. Dotrinaren ikasketa (AME-003/013)

Dotrina etxean ikasten zuten, ez eskolan. Ikasitako guztiak banan-banan aipatzen ditu Juanitok. Euskaraz ikasten bazuten ere, gaztelaniatik itzulitakoak ziren. Oraindik ere buruz dakizki dotrinan ikasten zituzten galderetako asko. Jaunartzea egin aurretik, igandero Amezketara joaten ziren dotrinara.

65. Amezketan Ugartekoak ziren; Ugarten berriz, erbestekoak (AME-003/014)

Jaunartze txikia zazpi urterekin egin zuten eta handia hamaikarekin. Dotrina ikasten zuten Amezketako haurrekin, baina bertan ez zuten lagunik. Amezketan "Ugartekoak" deitzen zieten eta Ugarten "erbestekoak".

66. Dotrina ez jakiteagatik zigortuak (AME-003/015)

Apaizak batzuetan haurrak jotzen zituen gerrikoarekin dotrina ez jakitearren. Joxepa eta Juanito ez zituzten inoiz zigortu baina beldurrez egoten ziren.

67. Dotrina bazekitela egiaztatzen zuen txartela (AME-003/016)

Dotrina bazekitela egiaztatu behar zuten. Horretarako txartel bat zuten eta "pazkozko" deitzen zioten. Batzuek txartela lortzeko janaria eramaten zieten abadeei: gereziak, bildotsa...

68. Etxean ez zen gerrari buruz hitz egiten (AME-003/017)

Gurasoek ez zuten gerrari buruz asko hitz egiten, baina jendearen artean liskarrak eta pikeak zeudela jakina da.

69. Makilekin borrokan mitin politiko baten ondoren (AME-003/018)

Gerra aurretik, Bedaion egin zen mitin baten ondoren makilekin joka ibili omen ziren gizon batzuk.

70. Agurainera gaztelaniaz ikastera (AME-003/019)

Eskolan "Viva España" abesten zuten arratsaldetan. Goizetan errezatu egiten zuten. Juanitok Agurainen ikasi zuen gaztelaniaz.

71. Errazionamendua (AME-003/021)

Gerra ondorengo errazionamendua. Okindegian ogi piska bat gehiago ematen zieten. Gero, noizean behin beste produktu batzuk banatzen ziren errazionamenduan: azukrea, arroza, kafea... Lentejen artean harriak egoten ziren eta kontuz ibili behar izaten zuten. Ugarteko plazako dendan jasotzen zituzten errazionamenduko elikagaiak.

72. Gerra ondoren gosea ez baina eskasia bai (AME-003/022)

Joxepak ez du gogoratzen gosea pasa izana, baina bere anai nagusiek bai. Ez dute goserik pasa, baina eskasia bai. Taloa eguneroko jana zen, gosaltzeko eta afaltzeko. Talo gabe ez zekien jaten Juanitok. Gaur egun ere jaten du.

73. Babarruna, oinarritzko elikagaia (AME-003/023)

Babarruna oso garrantzitsua zen. Eguneroko janaria zen eta batzuk saldu ere egiten zuten.

74. Garia, artoa eta babarruna ereitea (AME-003/024)

Garai batean, baratzako produktuak ziren garrantzitsuak: garia, artoa eta babarruna. Bakoitza ereiteko momentua. Lur ona behar dute, lokatzik gabekoa.

75. Baratzea eta ilargiaren faseak (AME-003/026)

Gurasoek, ilargiaren faseak begiratzen zituzten baratzean lan egiteko. Beraiek, geroago ikasi dute hori. Gariarentzat, ez zioten ilargiari begiratzen, eguraldiari baizik.

76. Basoa eta ilargiaren faseak; hostoen forma (AME-003/027)

Zuhaitzak botatzeko ilargiari begiratu izan diote. Amezetaren toponimia, "ametz" zuhaitzetik omen dator. Inguruan zeuden zuhaitzak: urritza, haritza, gaztainak, ametzak, altza, pagoa... Zuhaitza ilargiaren fase konkretu batean botatzen denean, pipia sartzeko arrisku gutxiago dago. Hosto zorrotzak dituzten zuhaitzak normalean ilbeheran bota beharrekoak izaten dira, eta hosto borobilak dituztenak ilberrian.

77. Egurra erramintak egiteko (AME-003/029)

Sutara botatzeko, eraikuntzarako eta erraminten kirtanak egiteko erabiltzen zen egurra jasotzeko orduan, ilargiari begiratu izan zaio.

78. Agurainen morroi, gaztelania ikasteko (AME-003/033)

Agurainen ibili zen Juanito beste bi anairekin gaztelania ikasten. "Los vascos" deitzen zieten. Morroi bezala ibili ziren hango baserri batean. Urtebete egin behar zuen bertan, baina etxera bueltatu behar izan zuen.

79. Garai batean Agurainen euskararik ez (AME-003/034)

Garai batean Agurainen inork ez zuen euskararik egiten, Gipuzkoatik joandakoa ez bazen. Orain dela urte batzuk Agurainera joan ziren hileta batera eta harrituta gelditu zen, orain euskaraz egiten delako bertan.

80. Aguraineko baserri batean morroi (AME-003/035)

Agurainera morroi bezala joan zenean maiatza zen eta patata sartzen ari ziren. Garia, oloa, garagarra eta zekalea ereiten zen. Lanak eta tresneria. Segarekin ebakitzen zen garia. Eguneroko lanak.

81. Neskame joan zen gaztelania ikasteko (AME-003/036)

Neskame bezala atera zen etxetik, batez ere gaztelaniaz ikasteko. Jende asko joaten zen morroi edo neskame beste leku batzuetara, dirua irabazteaz gain gaztelania ikasteko.

82. Amezketatik Donostiara neskame bezala (AME-003/037)

Joxepak gaztelania ikasi nahi eta Donostiara joan ze neskame bezala lanera. Bost haur zaintzen zituen eta hiru neskame ziren. Bi urte eta erdi pasa zituen umeak zaintzen eta gero dontzeila bezala. Hondartzara joan behar izaten zuen haurrekin eta ez zitzaion batere gustatzen. Familia aberatsa zen. Uniformearekin ibiltzen ziren hiru neskameak. Lehenengo hilabeteak gogorrak izan ziren.

83. Bi senide hil ondoren ordezeko anai-arrebak ekarri zituzten etxera (AME-004/002)

1933ko abenduaren 28an jaio zen Bedaion. Hamar senidetan gazteena zen. Bi senide hil egin zitzaizkien eta ordezeko neska-mutilak ekarri zituzten kontzientzian harra zutelako. Anai-arreba bezala hartu zituzten.

84. Apaizaren sermoia; bertso zaharrak kantatzen (AME-004/003)

Herriko apaizak emandako sermoi bat gogoratzen du. Bertso zaharrak kantatzen zituzten. Anastasiok ere ikasi zituen zenbait bertso.

85. Maizterrak ziren; soroan ateratakoaren zati bat entregatu behar izaten zuten (AME-004/004)

Etxeko mahaian hamabi lagun biltzen ziren. Morroia ere izaten zuten. Gehienak maizterrak ziren, Elosegiko Markesaren etxeetan. Patata, garia, artoa, babarruna,... soroan egiten zituzten eta parte bat entregatu behar izaten zuten. Gauzak asko aldatu dira.

86. Soroetan kaletarrek lapurretak egiten zituzten (AME-004/005)

Lapurreta asko izaten ziren garai haietan. Lapurreta egiten zutenak kalekoak izaten ziren. Baserritar batek kaletar bati lur saila txiki bat nola utzi zion kontatzen du.

87. Gaztetan morroi; gero ardiak erosi zituen (AME-004/007)

Denbora asko morroi pasa zuen, baserri ezberdinetan. Ez zuen soldatarik irabazten. Ardiak erosi zituenean ez zuen batere dirurik. Aita baserritarra zuen. Artzaintza morroi ibili zenean ezagutu eta gustatu zitzaion. Udan anaiarekin Amezketako baserri bateko ardiak zaintzen zituen.

88. 239 ardi erosi zituen soldaduskatik etorri ondoren (AME-004/009)

Anaiak ardiak erosi zituenean hari laguntzen hasi zen. Soldaduskatik bueltan erosi zituen bere ardiak. 239 ardi erosi zituen kolpe batean. Morroi izateaz aspertuta zegoen eta aurrera egin zuen.

89. Neguan ukuiluko lanak egiten (AME-004/010)

Ardi latxak erosi zituen. Neguan ukuiluko lanak egiten ibiltzen zen. Ukuiluko lan haiek nolakoak ziren kontatzen du.

90. Ardiekin egin beharreko lanak (AME-004/012)

Gauean ardiei begiratu egin behar izaten zitzairen. Ardi latxak ederrak direla dio. Arkumeak jaiotzen direnean titia hartu arazi behar zaie. Ama maite ez duten arkumeak ere izaten dira. Ardiekin egiten zituzten lanak azaltzen ditu.

91. Artzaintzat zakurra oso garrantzitsua da (AME-004/013)

Ardiak gobernatzeko txakurra erabiltzen zuen. Lehen artzain ibilitako bat morroi hartu zuen. Zakurrak beti izan ditu. Hemengo zakur nahasia izaten zen, gorrixka bat, ile luzekoa. Zakurrak asko laguntzen du. Behin zakurrak alde egin zion artzain bati gertatutakoa Fernando amezketarraren hitzetan kontatzen du.

92. Ardiak zein terrenoetara eramaten zituzten (AME-004/014)

Mendira Arritzara joaten zen. Leku hura non geratzen den kontatzen du eta bidean zein etxe pasatzen diren ere bai. Terreno horiek Amezketaoak dira eta Ulikoak. Mugak harriekin markatuta daude.

93. Txabolatik astean behin jaisten zen (AME-004/017)

Denbora asko txabolan pasatzen zuen eta janaria bukatzen zitzaionean itzultzen zen etxera. Azokara ere joaten zen larunbatetan. Astoz jaisten zen. Txerriak ere jarri zituzten. Astoa lotuta edukitzen zuten. Txerrientzat garoa eramaten zuten. Egurra ere biltzen zuten. Jana berak egiten zuen. Beranduago ekonomika eta komuna jarri zuten.

94. Mendiko txabolan zer jaten zuten (AME-004/018)

Jateko txerriak, patata, arrautzak, izaten zituzten. Esne-zopa ere egiten zuten baino talorik ez. Ogia aste osorako eramaten zuten. Ogia zaku batean sartzen zuten.

95. Txabolako bizimodua (AME-004/019)

Txabolan erlojua izaten zuten. Egunarekin jaikitzen ziren eta ardiak biltzen zituzten eta lanean hasi. Ez zuten goserik pasa. Gosalduta ondoren gaztak egiten zituzten.

96. Esnea osinez beteriko inbututik pasatzen zuten (AME-004/022)

Inbutua nolakoa zen kamerari erakusten dio. Inbutuan osinak jartzen zituzten. Prozesu hura deskribatzen du. Orain trapearekin egiten dute. Osinak eskuz biltzen zituzten. Eguraldi txarra egiten duenean osinek gutxiago erretzen dute.

97. Emazteak asko lagundu dio (AME-004/023)

Txabolan Anastasiok berak egiten zuen jana. Ezkondu ondoren andreak asko lagundu zion. Sei ume izan zituzten. Emaztearekin nondik nora ibili zen kontatzen du. Andrea ere mendira joaten zen laguntzera.

98. Gazta nola egiten zuen (AME-004/025)

Goizean ardiak jetzi, esnea irazkira pasa, gatzagia eman, nahastu eta utzi egin behar zen. Esneak tenperatura egokia behar du. Andreak asko lagundu zion. Gazta egiteko erabiltzen zituen tresnak erakusten ditu eta nola erabiltzen zituen azaltzen du.

99. Gazta egin ondoren prentsa eta ur gazitua (AME-004/026)

Gazta egin ondoren prentsan estutzen zuten. Prentsa garai batean nolakoa izaten zen erakutsiko duela esaten du. Prentsak harri bat izaten zuen. Prentsan egun osoan edukitzen zuten gazta. Gatza uretara bota eta gazta bertan sartzen zuten. Gazura txerriei ematen zien.

100. Gaztak etxean gorde eta gero saldu egiten zituzten (AME-004/027)

Gazta egin ondoren saldu arte apal batean uzten zituzten. Gaur egun hozkailuan ere gordetzen dituzte baina garai batean ez. Garai batean egindako gaztak etxera eraman eta bertara etortzen zirenei saltzen zizkien.

101. Gaztak nola ketzen zituzten (AME-004/028)

Artzainek ke usain handia botatzen omen zuten txabolan gaztak ketu egiten zituztelako. Keak gazta goxatu egiten zuen. Gaztak nola ketzen zituzten azaltzen du. Kea egiten zuten bitartean beste lanetan ibiltzen ziren. Keak kolorea ematen dio gaztari.

102. Gaztarik hoberena San Joan bitartekoa (AME-004/029)

Gaztarik hoberena San Joan bitartekoa izaten zela esaten zen. Orain gauzak aldatu egin dira, lehen ilusio handiz egiten ziren gauzak. Belarra eta barazkiak atera berriak hobeak dira.

103. Harri urdinaren erabilera ardien zaintzan (AME-004/030)

Txabolan ardiei herrena kendu behar zitzairen. Harri urdina erabiltzen zuten lan horietan. Gaur egun beste botika batzuk badaude. Azkazalak labanarekin mozten zizkien. Harri urdina aspalditik erabiltzen zuten.

104. Ardien gaixotasunak; dena aprobetxatzen zuten (AME-004/031)

Ardiek gaixotasun asko izaten zituzten. Ume okerra zutenean arkumea akabatu ere egin behar izaten zuten. Orain botikei ezker umeak ateratzea lortzen dute. Behin morroi zegoenean gertatutakoa kontatzen du. Hiltzen zituzten ardiak aprobetxatu egiten zituzten. Hari zezina deitzen zioten eta potajearekin jartzen zuten. Janari hura nola prestatzen zuten azaltzen du.

105. Zintzarri mota asko zituzten; zintzarriak zein ardiri jartzen zizkioten (AME-004/032)

Zintzarriak erabiltzen zituzten. Behorrena ere badauka, Huarte Arakilen erositakoa. Dunba deituriko zintzarri batzuk ere baditu. Bost edo sei ardiei jartzen zien zintzarria. Ardi gaiztoenari eta hoberenari jartzen zioten.

106. Ardiak ezagutzen zituen; belarrietan marka jartzen zien (AME-004/033)

Ardi gehienak ezagutzen zituzten. Bi artalde juntatuz gero apartatzeko gai izaten ziren. Ez zien izenik jartzen ardiei. Ardiei belarrietan marka jartzen zien eta lapurretarik bazen horrela ezagutzen zituzten.

107. Ardiei ahariak noiz botatzen zizkien (AME-004/034)

Orain legeak ahariak aparte jartzea eskatzen du, baina garai batean ez zen horrela. Garai batean ahariak nola botatzen zituzten kontatzen du. Lehen arkumeak beranduago izaten ziren. Ardiek bost hilabete behar dituzte arkumeak egiteko.

108. Aralarreko larreak garai batean urte osoan irekiak izaten ziren (AME-004/035)

Aralarren orain maiatzaren 1ean irekitzen dituzte larreak baina lehen ez zegoen horrelako legerik, beti irekita egoten zen.

109. Ardiei ilea nola mozten zien (AME-004/036)

Ardiei ilea mozten zietenean otordu hobeak egiten zituzten. Kuadrillan egiten zuten lana. Eguraldi lehorra zegoenean egiten zuten lan hura. Zortzi edo hamar lagun biltzen ziren. Bi asteko lana izaten zen. Guraizez mozten zuten ilea. Ilea nola mozten zuten deskribatzen du. Ileaekin pila bat egiten zuten eta baserrira eramaten zuten. Handik beste batzuk erosten zuten.

110. Artilea garbitu eta haria egin (AME-004/037)

Artilearekin haria egiten zuen. Ilerik hoberena aparte gordetzen zuen, etxerako. Errekan garbitu ondoren erabiltzen zuen. Hariarekin andreak galtzerdiak egiten zituen. Hilea errekan xaboiarekin garbitzen zuen. Haria nola egiten zuen azaltzen du.

111. Haria egiteko prozesua (AME-004/038)

Lehen ilea arrotzeko erabiltzen zituzten tresnak azoka berezietan ikusi ditu. Anastasiok txaratila erabiltzen zuen, berak egindakoa. Haria nola egiten zuen deskribatzen du. Egindako hariari kanforra botatzen zion gero neguan andreak erabili zezan.

112. Abarka sokak nola egiten zituen (AME-004/039)

Ardi beltzen ilearekin abarka sokak egiten zituen. Ardi zurien ilea nahasiz gero politagoa ateratzen da. Orain ez ditu abarkak erabiltzen. Abarka sokak nola egiten ziren azaltzen du.

113. Arto zurikinezko koltxoien orde, artilezkoak (AME-004/040)

Txikiak zirenean artilezkoak baino okerragoak ziren zurikinezko koltxoiak erabiltzen zituzten. Gero artilea koltxoietarako ere erabiltzen zuten.

114. Tresnak erakusten (AME-004/042)

Elkarriketan zehar aipatutako tresnak kameraren aurrean erakusten ditu.

115. Zortzi urterekin, pardelak garbitzen; umeen arropatxoak (AME-005/003)

Zaharrena izanik, bere hamar anai-arrebak zaintzea tokatu zitzaion. Zortzi urterekin pardelak garbitzen zituen, eskuz. Felpazkoak ziren, zapiak. Karratuak ziren. "Paxa" zintarekin bueltaka bildu, "galartzua" sokarekin. Kateko orratzik ez zuten erabiltzen. Umeak lotuta, lau hilabetea. Arropatxoak: kamixa, paxa... Mantak. Umea sehaskan; gauez norberaren ohean.

116. Umea zaintzeko lanak: sehaska, biberioia, aia... (AME-005/005)

Ume txikia ohean edukitzen zuten askok. Egurrezko sehaskak, hankarekin eragitekoak; bitartean, josten ala patatak zuritzen. Umeak zaintzen. Biberioiak, kristalezkoak. Esnea, azukrearekin. Irinarekin aia egiten zuten. Babarruna.

117. Umea bularretik kentzeko moduak (AME-005/007)

Umeak bularra uzteko, titi-muturrak betunarekin belzten zituen amak, ozpinarekin edo baratxuriarekin bestela. Berak denetatik egiten zuen amari laguntzeko: sehaskari eragin, patatak zuritu... amak egiten zuen sukaldean.

118. Umeen zapiak garbitzeko modua (AME-005/009)

Zapiak nola garbitzen zituen: beratzen eduki eta gero xaboiarekin, Chimborekin. Gauean belardian edukita, mantxa joaten zitzaion. "Al verde". Iturria. Lejariak ez zuten erabiltzen ume arrokekin.

119. Ohe bakoitzean bi lagun (AME-005/011)

Umeei jaten ematea amak askotan egiten zuen, aita ere bai. Logeletan neskak eta mutilak nahastuta egiten zuten lo. Ohe bakoitzean bi lagun, gelako lau. Nekatuta joaten ziren ohera. Jaikitakoan, jolasean. Gurasoek seiak aldean jaikitzen ziren.

120. Umea medikuak ekartzen zuen maletan (AME-005/012)

Jaiotza asko ezagutu zituen etxean, baina ikusi ez: sekretua zen. Medikua eta amona egoten ziren. Atarian maindire zuria jartzen zuten, amonari abisua emateko. Ez zieten ezer esaten. Medikua maletan ume txikia zekarrela esaten zieten. Amari ez zitzaion asko igartzen, bata eta kortsea erabiltzen zituelako. 22 urterekin ere ez zion esan, ordurako bazekien arren.

121. Hilerokoa, ezkutuan eraman beharrekoa (AME-005/013)

Hilerokoa zer zen ez zekien, baina ez zion amari galdetu. Ez du gogoan zer egin zuen; painuak berak hartu zituen, eskatu gabe. Gorde egiten zituzten, koltxoi azpian, eta denen ezkutuan garbitu. Ezkondu arte, amak ezer ez. "Regla" hitza. Izebei aditutakoak.

122. Gurasoek lotsarengatik ez zuten azalpenik ematen (AME-005/015)

Gurasoek lotsarengatik ez zuten ezer esaten, bere ustez. Hileroko minez zegoenean aspirina hartzen zuen. Amak ez zion zergatia galdetzen. Kamamila ura. Sua beti piztuta egoten zen. Hilerokoarekin egonda saltsak gaizki irteten zirela zioten; maionesa ez zen egin behar, ezta odolkiak ere.

123. Lagun artean ere isilik, gai tabuak (AME-005/016)

Lagun artean ere ez zuten hilerokoa aipatzen; lagunari gertatu zitzaiona, painua erori. Berak kate orratzarekin lotzen zuen. Mutilek ezer ez zekiten. Lotsa, kontatzeko eta esateko. Iritzia.

124. Sorginen beldur, umetan (AME-005/018)

Umetako beldurak. Sorginak etorriko zirela esaten zieten. Behin gauza zuri bat ikusi zuen leihotik, eta sorgina izango zela esan zioten. Bedaion sorginak izaten zirela kontatzen zuten. Biloba, berak ere behin sorgina ikusi zuela esanez.

125. Sorginak eta Sacamantecas (AME-005/020)

Sorginek animalia forma ere hartzen zuten, behiarena adibidez. "Sasi guztien gainetik". Sakamantekas. Isildu egin da bilobak ez entzuteko, gero ezin izaten duelako lorik egin.

126. Sakamantekas (AME-005/022)

Sua bezalako gauza bat ikusi zuen behin estalpean, eta oraindik ez daki zer zen. Sakamantekasek umeak zakuan sartuta eramaten zituen, eta gero organoak kentzen zizkien. Mari zuloko sorginak. Etxean amonarik ez du ezagutu.

127. Amezketako bideak, plaza eta eliza (AME-005/023)

Baserria kaletik ordu erdira zuten, eta bideak txarrak ziren, lurrezkoak. Oiloak, txerriak eta astoak izaten ziren. Eliza aparte egotearen arrazoia azaltzen du, kondaira: San Bartolomek hala nahi omen zuen. Plaza.

128. Eskolan zigorra, euskaraz egiteagatik (AME-005/025)

Elizara igandetan eta bezperetara; bestela ez zieten uzten etxetik irteten. Hamabi urte arte ibili zen udaletxeko eskolan, neska-mutilak elkarrekin. Maisu erdalduna. Erdaraz jakin ez, eta zigortuta egoten ziren, belauniko. Makilarekin jo.

129. Bataioa, segituan; linboa (AME-005/028)

Umea jaio eta segituan bataiatu behar zen. Alaba zaharrena hurrengo egunean bataiatu zuten. Etxetik ezin zuten atera umea izandakoan; bestela, teila puska bat jarri behar buruan. "Eliz sartzea" egindakoan, libre¡. Linboaren beldurra. Bedeinkatu gabeko lurrean lurperatzen zituzten; beraien buruaz beste egindakoak ere bai.

130. Inguruko herrietako euskara I (AME-005/034)

Euskara non hasten den aldatzen. Doinua ezberdina dute Alegiakoek eta Zaldibiakoak. Abaltzisketakoa antzekoa da.

131. Inguruko herrietako euskara II (AME-005/036)

Amasan euskara berdina goa da Alegian baino. Tolosaldeko euskara. Bizkaiko eta Iparraldeko euskarak itsusiak iruditzen zaizkio, ez direlako ulertzen.

132. Umezurtzak bulartzera etxera (AME-006/002)

Margaritaren gurasoek hamalau seme-alaba izan zituzten, baina tamalez, hiru jaio eta berehala hil ziren. Amaren esnea gal ez zedin, Fraisoroko umezurtzak har zitezkeen etxean. Margaritak kontatzen du gurasoek diruz laguntzeaz gain, arropak ere ematen zizkietela. Bi haur hartu zituzten Margaritarenean.

133. Hildako jaioberriak linbora (AME-006/003)

Bataiatu aurretik hildako jaioberriak linbora joaten zirela uste zen. Arriskua ikusiz gero, amak etxean bataia zezakeela kontatzen du. Aparteko leku berezi bat zegoen kanposantuan haurrentzat.

134. Aitona, ikazkina (AME-006/005)

Margaritaren aitonak Frantzisko Zubeldia zuen izena. Ikazkina zen. Denboraldi luzeak pasatzen zituen etxetik kanpora Arriben (Nafarroan) txondorrek egiten.

135. Ogia erretzeko labeak egiten zituen aitak (AME-006/006)

Hargina zuen aita. Ogia erretzeko labeak egiten zituen. Labea nola egiten zen azaltzen du: adreilu zabalekin oinarria, teila puska txikiekin arkuak. Herritik kanpora ere ibiltzen zen labeak egiten; 8 egunetik gora ere ematen zituen etxetik kanpora. 15 egunetik behin erretzen zen ogia eta, kontserbatzeko, arropa zuriaren artean gordetzen zela dio.

136. Tolosako azokara arrautzak saltzera (AME-006/007)

Aita lanean zen bitartean, amak gobernatzen zuen etxea. Asteazkenean zehar batutako arrautzak larunbateko Tolosako azokan saltzen zituen. Autobusez joaten zen. Diru harekin, azukrea, kafea eta beharrezko beste zenbait gauza erosten zituela kontatzen du.

137. "Egitako nobioak" gazte-gaztetatik (AME-006/010)

Garai hartan, gazterik ezkontzen ziren. "Egitako nobioak" ere, gazte egiten zirela kontatzen du Margaritak. Behin, mutil batek bizkarrean hartu eta putzua pasa zion, busti ez zedin. "Hiru urte barru etorriko naiz" esan, eta hitza bete zuen: Margaritaren bila etorri zen, eta harekin ezkondu zen. Hamar urteko aldea zuen senarrarekin.

138. Sugea etxeko leihoan (AME-006/013)

Etxeko leihoko loreontzian sugea ikusi zuen behin. "Illateiari" heldu zion senarrak (sutan zegoen egurrari) heldu zion senarrak eta hala joan zen harraskara, bertan harrapatu zuelarik.

139. Urdinez jantzita ezkondu zen (AME-006/015)

Oso dotore ezkondu zela kontatzen du. Soineko eta abrigo urdina erosi zituen ezkontza egunerako. Mantelina zeraman buruan. Gaur egun oraindik, elizara mantelinarekin joango litzatekeela dio. Donostian erosi zituen arropak. Elizan, ezkontzeko, aulki gorri bat jartzen zuten, alde bakoitzean aingeru bat zuela. Euskaraz izaten zen elizkizuna.

140. Ezkontza egunaren nondik norakoak (AME-006/017)

Hasieran, mezak latinez ematen ziren eta apaizak bizkarra ematen zien eliztarrei. Geroago hasi ziren mezak euskaraz ematen eta eliztarrei begira. Ezkontzak ere euskaraz izaten ziren. Eratzunei eta elizkizunari buruzko azalpenak batzuk ditu. Bazkaria Benta Haundin egin zuten. Postrea, apaizak erabaki zuela kontatzen du.

141. Aspaldiko kontua da arreo gurdian ekartzea (AME-006/018)

Arreo gurdian eramatea aspaldi bateko usadioa zela kontatzen du. Hala ere, maindireak prestatu zituela dio. Altzariak ere pixkanaka erosi zituzten.

142. Buruntzuzingo meatzetan mandazain. (AME-006/019)

Buruntzuzingo meatzetan mandazain ibilitakoa da. Ama zen ordurako. Barreno (laztabin) handi bat nola garraiatu behar izan zuen dakar gogora. Baso-bide oso aldapatsu bat zen.

143. Meategian gertatutako istripua (AME-006/021)

Meategiko lanaren inguruko azalpenak ematen ditu. Lehertu ez ziren karga batzuk eragindako istripu bat izan zen behin. Galiziatik etorritako bi langile zauritu ziren.

144. Buruntzuzingo meategiko kontuak (AME-006/022)

Martzelino Benito Amezketarra zen meategiko langileburua. Aurretik bere aita izan zela kontatzen du. Kanpotarrek jartzen zuten meategia ustiatzeko dirua (alemaniarrek, esaterako). Langileak ere kanpotarrak izan ohi ziren, galziarrak gehienbat nahiz eta amezketarrak ere jardun zuten lanean. Gaur egun zutik dirauen aterpetxe bat eraiki zuten pixkanaka galziarrek meategiaren aldamenean.

145. Margaritaren tabernaren sorrera (AME-006/024)

Meategia itxi zutenean eta horrekin batera bere diru-iturria agortu zenean. 45 urte zituen orduan. Seme zaharrenarekin hitz egin eta hark egin zizkion mahaia eta aulkiak; itxi berri zuten estankotik ere ekarri zituzten beste batzuk eta, horrela, jarri zuen Margaritak taberna etxabea. Jendez beteta egoten zen beti.

146. Margaritaren tabernako sukaldean zer jaten zen (AME-006/025)

Sukaldean egoten zen Margarita baina laguntzaileak ere izaten zituen. Denetik ematen zutela kontatzen du: babarrunak, ardi-gisatua, mondejuak...

147. Mondejuak nola egiten diren (AME-006/026)

Mondejuak nola egiten diren azaltzen du: osagaiak, hesteak nondik ekartzen zituzten, nola betetzen ziren, nola egosi eta nola lehortu. Osagaien neurria ondo zaintzea oso garrantzitsua izaten zela dio. Mondejuak zulatzeko amak ibiltzen zuen orratz bera erabiltzen zuen. Odolkiak ere egiten zituzten baina prozesua eta osagaiak desberdinak dira dira.

148. Urdaiazpikoak egiteko sekretuak (AME-006/027)

Txorizoa egiteko txerriaren erdiko pusketa erabiltzen zela dio. Urdaiazpikoak gazitzeko prozesuaz ere badihardu hizketan: oso delikatua izaten zela dio, izan ere, elbi batek ukituz gero, harra izango omen zuen ia seguru. 8 egunez egoten zen gatz-kutxan eta bi egunetik behin buelta eman behar izaten zitzaion. Harria jartzen zen gainean. Zintzilik jartzen piperrauts gorritz igurtzi ostean.

149. Ardi zezina (AME-006/028)

Ardikia ere gazitzen zen. Zezina esaten zitzaion. Hiru egunez egoten zen gatzetan. Uretan garbitu ostean, zintzilik jartzen zen lehortzeko

150. Babarrun zuriak jai egunetarako bakarrik (AME-006/030)

Umetan, lanegunetan, etxean babarrun gorria jaten zela dio. Egun seinalatuetan, ordea, amak babarrun zuria prestatzen zuela gogoan du. Etxeko soroetan egiten zituzten babarruna, artoa eta garia. Garbantzuk inoiz jaten zituztela kontatzen du baina dilistarik ez zela izaten dio.

151. Gabonetako otordu eta opari bereziak (AME-006/031)

Eguberrietan otordu berezia izaten zen. Leihoan ilusioz jarritako zapatan, laranja bat edo gozodendatik ekarritako gozoren bat aurkitu ohi zutela kontatzen du.

152. Tomasene baserriko bizimodua eta logelak (AME-006/032)

Tomasene baserria nola zegoen banatuta. 14 senide izan eta guztientzako lotarako lekua nola bilatu azaltzen du. Mahai baten gainean egiten zuen lo Margaritak.

153. Tximista sukaldeko leihotik sartu zeneko pasadizoa (AME-006/035)

Behin, gurasoak ganbaran artoa zuritzen ari zirela, txerria sartu zitzaion Margaritari sukaldean. Bizkarrean ukitu zuen momentu berean sartu zen leihotik tximista bat eta bota zituen biak, txerria eta bera, lurrera. Labetxotik, tximinian gora irten zen lehertu gabe. Orduz geroztik, ekaitza denean kandelak pizten ditu Margaritak babes eske.

154. Tximistetatik babesteko erramuz egindako gurutzeak (AME-006/036)

Santa Gurutz egunean, soroetan eta etxeetako leihoetan tximistetatik babesteko, bedeinkatutako erramuz egindako gurutzeak jarri ohi ziren. Kandela tanta bat botatzen zitzaien gurutze haiei.

155. Erlijioa eta ohiturak eskolaren gainetik (AME-006/038)

Aitaren egiteko ur bedeinkatua izaten zuten etxean. 8 urte egiten zituztenean egiten zuten komunio txikia; hura egin ostean hasten zuten eskola. 11 urterekin komunio handia egin eta neskame, edo beste lekuren batera lanera bidaltzen zituztela kontatzen du. Erlijio eta eliz kontuek pisu handia zuten garai hartan, eskolak baino handiagoa.

156. Dotrina eskola baino garrantzitsuagoa (AME-007/001)

Umetan etxean ikasten zituzten orazioak eta jaunartzea egin aurretik elizara joaten ziren dotrina jasotzera. Dotrina euskaraz zen. Galdera eta erantzun batzuk ikasi behar izaten zituzten. Amarentzat garrantzitsuago zen dotrina eskola baino.

157. Elizara sartu aurretik oinetakoak aldatu behar (AME-007/002)

Elizara igandetan eta bederatziurrenetan joaten ziren. Elizara sartu aurretik oinetakoak aldatzen zituzten. Baserrietatik ume mordo bat joaten ziren elizara.

158. Amezketako maisuak eta maistrak (AME-007/003)

Maistra beasaindarra zuten eta beti txiklea jaten zebilen. Ez zuten ezer ikasi harekin. Gero beste maisu eta maitstra batzuk egon ziren Amezketan eta Puldaintarren etxean bizi ziren.

159. Gaztelania jakiterik ez zen behar Amezketan (AME-007/007)

Behin gizon batek esan zion Margaritak ez zekiela gaztelaniaz ondo hitz egiten. Gizonari erantzun zion bera tontoagoa zela, ez ziolako euskaraz ulertzen, baina Margaritak gaztelaniaz bai, ordea. Ez du inoiz konplexurik sentitu gaztelaniaz ez jakiteagatik, ez zirelako herritik ateratzen. Ez zuten gaztelania ezertarako behar.

160. Nahiago zuten herrikoekin ezkondu (AME-007/008)

Amezketara heldu zen lehenengo gaztelarra Pepe izan zen. Herriko neska batekin ezkondu zen. Gero, Iraegi baserriko Maria, kanpotik lanera heldutako Mariorekin ezkondu zen. Nahiago izaten zen bikote euskalduna eta herrikoa izatea.

161. Amezketan "elbiak" eta Abaltzizketan "txalburuak" (AME-007/009)

Amezketan "elbiak" dira, Abaltzizketan "txalburuak..."

162. Amezketako gazteen gaiztakeriak (AME-007/011)

Amezketako gazteen gaiztakeriak kontatzen ditu. Astoa elizako atarian uzten zuten, harrika eta sagarrak botatzen ibiltzen ziren... Neskek ere egiten zituzten gaiztakeriak.

163. Otordu guztien aurretik errosarioa errezatzen zen (AME-007/013)

Umetatik bazekite zer zen heriotza. Errosarioa ere otordu guztien aurretik errezatzen zuten.

164. Hamaika urterekin neskame (AME-007/014)

Garai batean haur asko izaten zituzten. Margarita 11 urterekin bidali zuten neskame. Jabea gaiztoa zen eta errosarioa lapurtu zuela leporatu zion behin. Behiak zaintzen zituen, zoroan lan egin... San Martin eliza inguruan zituzten animaliak.

165. Ijito euskaldunak eta hungaroak Amezketan (AME-007/016)

Ijito euskaldun asko zegoen garai batean. Etxeberria abizena zuen ijito bat aipatzen du. Sasoika agertzen zen Amezketan, eta basoan bizi ziren. Ez zuten errentarik ordaintzen. Gero hungaroak heldu ziren eta Igoneko zubiko bordan bizi ziren. Gona luzeekin jazten ziren eta eskean ibiltzen ziren. Eskua irakutzen ibiltzen ziren eta bere anaia Markos engainatu omen zuten.

166. Herriko ijitoek beraiekin ligatu nahi zuten (AME-007/017)

Ijito euskaldunak eta hungaroak oso ezberdinak ziren. Hungaroek ez zekiten euskaraz. Etxebarria ijito euskaldunaren semeekin ez zuten nahi tratatu handirik izan nahi Margaritak eta bere lagun Joxepak.

167. Amezketako ijitoak (AME-007/018)

Etxeberriatarrak (ijitoak) euskaraz egiten zuten, ama Hernani ingurukoa zelako. Aita gizon bikaina eta dotorea zen. Ez zitzaien antzematen ijitoak zirenik. Gero Bilbora joan ziren eta zirku batean lanean hasi ziren. "Ijito beltza" esaten zioten ijito bat ere ibiltzen zen herritik eta astero etxez-etxe ibiltzen zen. Haur asko zituen.

168. Gerra Amezketan sartu zenean (AME-007/021)

Gerra hasi zenean 12 urte zituen eta Tomasenea baserrian bizi zen. Handik Beasainetik Larraitzera kainoia nola bota zuten gogoan du. Hori izan zen gerraren hasiera.

169. Gerra aurreko hauteskundeak (AME-007/022)

Entzuten zen gerra etorriko zela. Lehenago hauteskundeak egon ziren eta auzoko batek abertzaleei bozkatzeko eskatu zien, baina emakumeek karlistak bozkatu zituzten, abadeak horrela esan zuelako.

170. Gerra garaian miseria handia (AME-007/023)

Gerra hasi zenean, etxe guztietako mutil gazteak joan ziren borrokara. Margaritaren hiru anai erreketeeekin joan ziren. Gainontzeko seme-alabak lanean hasi ziren, miseria handia zegoelako. Gose asko pasa zuten gerran.

171. Errazionamenduko ogi beltza (AME-007/024)

Gerra ostean errazionamendua zegoen eta plazako okindegian ematen zieten ogi beltza. Udaletxean egoten ziren terriek irina jaten zuten.

172. Santa Genovevaren istorioa (AME-007/026)

Santa Genovevaren bertsoak buruz zekizkien eta liburuak ere zituen. Genovevaren istorioa kontatzen du.

173. Maria Goroitiren istorioa (AME-007/028)

Maria Goroitiren istorioa eta bere heriotza kontatzen ditu.

174. Pernando Amezketarraren ondorengoak (AME-007/029)

Fernando Amezketarraren etxea. Bengoetxeatarrak omen dira bere ondorengoak.

175. Mandoa putzura erori zitzaionekoa (AME-007/032)

Behin animaliekin bidetik zihoala, mandua putzu batera erori zitzaion eta nola ateratu zuen kontatzen du.

176. Txindokiko Mariren jatorria (AME-007/033)

Mendian asko ibili da Margarita, Txindokin eta Anboton batez ere. Iraegiko neskamea zen Marik ihes egin omen zuen baserritik eta Txindokiko Mariri bilakatu zen. Handik Anbotora joaten zen. Isatsa zuela esaten zen.

177. Mateo Txisturen istorioa (AME-007/035)

Mateo Txisturen istorioa.

178. Sorginen istorioak (AME-007/036)

Sorginak maindirea buruan jarrita ibiltzen omen ziren. Zizurkilen, jendea ikaratzen zuen zuriz jantzitako emakume bat ibiltzen omen zen. Amezketan ere bazegoen bat eta bere familia ezagutzen zuten. Erratzarekin hegan joaten omen zen, "laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik".

179. Amezketako zentrolean jaioa (AME-008/002)

Amezketako Zentrolean jaio zen Joxepa. Beste bi gizonezkorekin batera egiten zuen bere aitak lana bertan. Tolosarako argindarra ekoizten zuten. Lankideetako baten erruz lana galdu zuenean utzi behar izan zuten etxe hura. 13 urte zituen Joxepak orduan. Aitonaren errota bizi izan ziren hiru urtez eta, handik, erosi ahal izan zuten beste etxe txiki batetara.

180. Zentrala nolakoa zen (AME-008/004)

Mendi aldera zegoen presako ura hodi handi batzuen bitartez zetorren zentralera. Argindarra ekoizteko hiru makina handi ditu gogoan. Askatasun handiegiz ibiltzen ziren inguruan ume zirela; ez zen sekula ezbeharririk gertatu. Makinen ardura zuen Joxeparen aitak.

181. Jostun lanetan ibilia (AME-008/006)

Tolosan ikasi zuen josten. Jositako arroparik ez zen egoten; oihalak erosi eta josi behar izaten ziren hauek. Etxerako bakarrik josten zuen hasieran baina, kanpotik etorritako enkarguak hartzen ere hasi zen gerora. Denetik josten zuen: abriguak, alkandorak, frakak, trajeak... Amak erosi zion Tolosan josteko makina

182. Puntu egitea ere oso gustuko lana (AME-008/007)

Lehenbizi, puntu egiten ikasi zuen.. Galtzerdiak ehuntzeko orratzak anaiak egin zizkion aterki baten hagaxkak erabiliz. Senideentzako jertseak ere egin izan zituela kontatzen du. Jertse zaharrak askatetik lortzen zuen haria; berria ere erosten zioten gerora.

183. Igande arratsaldeetako plazako dantza saioak (AME-008/008)

Gerraostean, igandero etortzen zen Jazbana (hiru lagunek osatzen zuten pandero, soinu eta perkusio orkestratxoa) Amezketako plazara. Iluntzerako, "aimariak" jotzerako, etxera joan behar izaten zuela kontatzen du. Penaz joaten zela dio nahiz eta batzuetan tranpa txikiak egin.

184. Ategorrietako neskame eskolan ikasi zuen brodatzen (AME-008/009)

Ategorrietako (Donostia) eskola batean egon zen 8 hilabetez neskame izateko ikasketak egiten. Brodatzen ikasi zuela kontatzen du; bestak beste, bere arreoko maindireak egin zituen han. Argia behar izaten da ordea eta indar nahikorik ez etxean. Mahai gainean aulkia jarri eta bonbilla azpian esertzen zela kontatzen du; pare bat aldiz erori omen zen bertatik.

185. Zortzi neska etxean josten ikasten (AME-008/011)

Hirugarren semeak 13 hilabete zituenean utzi zion josteari. Zortzi neska izatera iritsi zen etxean josten; neguan batez ere, josten ikastera joaten zitzaizkion. Hileko duro bat kobratzen zien.

186. Jostun lanaren xehetasunak: prezioak, probak eta lotsak (AME-008/014)

Gizonezko baten frakak josteagatik 7 pezeta kobratzen zuen. Gizonezkoen galtzak josteko garaian ez zen probarik egoten. Gizonak lotsatzen ziren baina baita bera ere. Hiru pezeta balio zuen alkandora bat josteak, 8 pezeta bata batek. Txalekoa egitea zailagoa izaten zen. Botoien arabera alda zitekeen prezioa.

187. Gonak, maukak eta bekatuaren mugak (AME-008/015)

Gonak eta soinekoak belaunetik behera eramaten ziren; mauka luzeak eta eskote itxiak erabili behar ziren ere bekatu egin nahi ez bazenuen. Argazki bat ere badu galtzak jantzita; hala ere, ez zen ohikoa emakumeak frakak jantzita ikustea.

188. Gerra osteko eskasian, azukre zakuak eta mantak arropak josteko (AME-008/016)

Gerra denborak bizi izandako gabeziak. Azukre zakuak tindatu eta haiekin arropak jositakoak ezagutu dituela kontatzen du. Paper-fabrian ematen zituzten mantekin ere josten zituzten jantziak.

189. Olio eta beste jaki askoren eskasia (AME-008/017)

Zentraletik bota zutenean, paper-fabrian hasi zen Joxeparen aita lanean. Senitarteko batzuen bitartez lortzen zituen josteko oihalak amak. Gerra garaian jakiak lortzeko pasatako estutasunei buruz: oliorik ez zegoen. Esnea egostetik lortutako esne-gaina erabili behar izaten zuten babarrunak egiteko.

190. Gerra garaiko errotako kontuak: prezintoak eta estraperloa (AME-008/018)

Aitonarena zen errotan bizi izan ziren Joxepak 13 urte zituenetik 17 urte bete zituen arte. Gerra garaian, errotak prezintatuta egon ziren, nahiz eta prezintoak kentzen zizkietela kontatzen duen. Zaratarik atera ez zezan, egurra

kendu eta eskuarekin botatzen zuten garia edo artoa pixkanaka beste batzuk leihotik zaintzen zeuden bitartean. Hari esker, goserik ez zutela pasa dio, errazionamenduko ogia oso txarra izaten baitzen. Estraperloko ogia ere egoten zen okindegietan.

191. Gerra garaiko izua: pinudian gordeta lo (AME-008/019)

Sasoi batean, etxeko gizonen pinudian lo egitea erabaki zutela kontatzen du. Beldur ziren nazionalistak izateagatik bila etorri eta etxetik atera ondoren bertan hilko ote zituzten. Gerra garaian ohikoa zela dio.

192. Gerra garaiko izugarrikeriak: amildegian behera botatzen zituzten gizonak (AME-008/020)

Andregaia kendu nahi zion falangista batek amaren lehengusua nola erail zuen kontatzen du. Falangistek edo karlistek aukeratutako gizonak kamioietan sartu eta mendietatik amildegira botatzen zituztela kontatzen du. Bere senarra soldadu zen garai hartan, eta nahiz eta berari ez zitzaion tokatu halakoetan parte hartzea, beldur izaten zuela dio, ezetz esan ezin zitzaion lan hura aginduko ote zioten, bera ere hilko ote zuten beldur. Hobi haiek Ordizia eta Beasain artean daude, mendian; noizbait eraman izan du senarrak ikustera.

193. Haurtzaroa gerraren itzalean (AME-008/021)

12 urte zituen gerra hasi zenean. Zentralean bizi ziren oraindik. 15 eguneko kontua izango zela esan zuten arren luze iraun zuela dio. Herriko mutilak eraman zituztela dauka gogoan, baita Gaintza bonbardatu zutela ere. Korrika alde egiten zuten ezkutatzera hegazkinak ikustean. 7 urtez egon zen bere senarra frontearen. Metrailaz zauritu eta bi hilabetez etxean egon ahal izan zuen sendatzen bizilagunen batek salatu eta frontera itzuli behar izan zuenera arte.

194. Herri txikietako giroa gerra garaian: beldurra, desagerpenak eta komunikazio etena (AME-008/022)

Herri txikietan garbi jakiten zen nor zen nazionalista, nor karlista, nor liberala... Aldekoak bilatzeko ahaleginetan ibiltzen zirela ere kontatzen du, konbentzitzeko ahaleginetan. Gerra aurrera zihoan heinean, herriak erortzen joan ahala, beldurra nagusitzen joan zen etxean, batez ere seme nagusiak zituztenetan. Gazte asko hil eta desagertu ziren. Nazionalisten gutunak ez ziren etxera iristen; frontera bidalitako jaki edo arropak ere, nekez jasotzen zituzten. Herria gaztez hustu zen.

195. Dolu giroan bizi ziren gerrak iraun zuen bitartean (AME-008/023)

Gerrak iraun zuen bitartean ez zen festarik egon, ez bataiorik, ez bazkaririk... lutoa baino ez zegoela dio. Umeak etxean mantentze aldera, "Sakamantekas" zebilela esaten zutela dauka gogoan. Etxean egon zitezkeen lanak egiten eta dotrina ikasten pasatzen zuten eguna.

196. Komuniorako prestaketa. Dotrina, eskolaren gainetik. (AME-008/024)

Gerra garaian, etxean zeudela irakatsi zien Joxepak anai-arrebei dotrina. Errepikatzearen errepikatzeaz ikasi zuten hauek. Eskolari baino garrantzia handiagoa ematen zitzaion dotrinari garai hartan. Bi komunio egiten ziren eta, bigarrena egiterako, garrantzia gehien zuena eta zuriz jantzita egiten

zutena, dotrinak ondo ikasia behar zuen. Oparirik eta bazkaririk ez zen izaten, gerra denboran batez ere.

197. Erditzea eta ondorengo errituak (AME-008/025)

Auzoko emakume batek laguntzen zien erditzeko zeuden emakumeei. Ondoren, bi edo hiru egunez, haur jaioberria garbitu eta janzteaz arduratzen zen. Eta emakume hura bera izaten zen haurra elizara bataiatzeko eramateaz arduratzen zena. Ahal zen azkarren bataiatzen ziren jaioberriak. Aurrerago, "elizan sartzea" esaten zitzaion erritua egitera joaten zen ama jaioberriarekin. Aurretik, ama hura ezin zen etxetik irten eta, irtengo bazen, teila buruan jarrita egingo zuen.

198. Egurrezko automobila (AME-009/002)

Abaltzisketakoa zen senarra eta, handik Amezketara korrika joaten zela kontatzen du. Izan ere, ez zegoen bestelako garraiobiderik. Herrian lehenengo automobila bere senarrarena izan zela kontatzen du baina berezia zen, txasisa osorik egurrezkoa zuelako. Arotza zen Tolosako lehengusuak egin zion. Gustura joaten ziren Igeldora egunpasa kotxe hartan.

199. Amezketarrak eta Abaltzisketarrak elkarri harrika (AME-009/003)

Amezketarren eta Abaltzisketarren artean harrika ibiltzen zirela dauka gogoan. Nesketara etortzerik ez zuten nahi izaten antza. Senarrak ere jaso omen zuen harrikadaren bat Joxeparekin hasiberrian.

200. Kongregazioan, bekatariek zinta morea janzen zuten (AME-009/004)

Dantza sueltoan ibiltzea oso gustuko zuen. Lotuan egitea debekatuta zuten; bekatua eginez gero, kongregazioan zinta more bat jartzen zieten denek jakin zezaten zerbait gaizki egin zutela.

201. Elizak kentzen zuen festa denbora (AME-009/006)

Elizak eta elizkizunek festarako denbora kentzen zien. Mezatarra goizean, bezperetara arratsaldean edo apaizarekin kantak ikasten egon behar izaten ziren. Dantzara joateko noiz amaituko zain egoten zirela dio.

202. Nobio kontuak dantza ostean (AME-009/008)

Nahiz eta batzuetan, iluna zetorrelako ez zuten dantzarako denbora nahikoa izaten, abarketa pare bat txikitzei baino izaten zela kontatzen du. Lagunartean mutil ezberdinen inguruko iritziak elkarbanatzen zituzten. Gustukoa ez zen mutilak laguntzen bazituen, azkar joaten ziren etxera; alderantziz, gustukoa bazen, polikiago ibiltzen zirela dio. Bi ezkongai izan zituen Joxepak.

203. Apaintzea bai, baina neurrian (AME-009/009)

Permanentearen aurretik, kizkurak lortzeko, kordioekin lotzen zuten ilea iluntzean. Makillajerik ez zegoen arren, ezpainik ere ez zuten margotzen bekatua zelako.

204. Esne bila Zazpiturrietata zihoazen hodien gainetik (AME-009/012)

Zazpiturrietako iturburutik Zentral hidroelektrikora jaisten ziren hodien gainetik igotzen ziren mendian goian zegoen baserrira esnetara. Lagunari behin gertatutakoa kontatzen du.

205. Jolaserako astirik gabe (AME-009/013)

Auzokoaren etxean bazeuden bere adineko haurrak eta gustukoa zuen haiekin jolastea baina, denbora askorik ez zuen izaten lanean zegoelako beti. Baimenik ez zuen batean ihes egin zuela kontatzen du baina, gauez alde egin zuenez, lo aurkitu zituen guztiak.

206. Gordeketa, sokasalto eta "Txor-txorie" (AME-009/014)

Umetako jolasak: gordeketa, sokasaltoan, txor-txorian. Jolasei buruzko azalpenak ematen ditu.

207. Haurren pixoihala eta paxa (AME-009/020)

Pixoihalak egiteko izara izkinak erabiltzen ziren. Hiru puntako edo lau puntako fardelak izaten ziren; aurrerago gasak ere erabiltzen zirela dio. Paxa esaten zitzaion zapi moduko batekin, estu bilduta eramaten ziren haurrak lehen, benda batekin lotuta bezala. Garbitzeko, belaki bat eta ura baino ez ziren erabiltzen. Ume asko zegoen etxean, arropak ondo antolatu behar izaten ziren.

208. Altzariantzako argizaria (AME-009/022)

Zoruari emateko argizaria ontziratu gabe ekartzen zuten; bezeroek ekarritako poteetara zuzenean eskatutako kopurua botaz saltzen zuten. Lixibaz garbitzen ziren altzariak eta ondoren, argizaria eman eta distira atera behar izaten zitzairen. Joxepak kontatzen duenez, bere anaiak lurrari distira ateratzen laguntzen zion, prakak lisatzearen truke

209. Beraien baserriak ura zuenez ingurukoak ur bila etortzen ziren (AME-010/002)

Aitak beti baserrian egin zuen lana. Aitona eta amona ere etxean bizi zituzten. Lana handia egin behar izaten zuten. Etxe atarian ura zuten eta hori bentaja zen. Inguruko baserrietakoek hemendik eramaten zuten ura. Ura gehienetan emakumeek eramaten zuten. Elurra zenean berriz, gizonezkoek. Ondoko etxeko amonari Axintxiok ura jarri zion. "Zazpiturri" deituriko iturritik herrira ura ekartzen dute.

210. Turbina bati esker, argia etxean (AME-010/003)

Turbina bati ezker argia jarri zuten etxean duela 100 urte eta oraindik ere etxeko argia pizteko erabiltzen zuten. Axintxion aita kapritxosoa zen eta turbinaren sistema asmatu zuen. Aitak Bedaioko etxe batean hartu zuen ideia.

211. Argindarragatik nola ordaintzen zuten (AME-010/004)

Errota zutenek argiindarra izaten zuten. Ukuiluko paretan bonbilla jarrita dauka oraindik ere bi aldetara argia ematen duelarik. Argia kobratzera etxeetara etortzen ziren. Turbina txikiaren kontribuzioa Donostian ordaindu behar izaten zuten. Fregaderako urak biltzen dituen sistema bat antolatuta dute.

212. Erleek erregina bakarra behar izaten dute (AME-010/005)

Erleak aspalditik dituzte baserrian. Hamar urte zituela aitari laguntzen zion erleak zaintzen. Erregina bat baino gehiago daudenean erregina bat bere umeekin atera eta jatorrizko enborrera itzultzen dira.

213. Aspalditik erle lanetan erabiltzen dituzten tresnak (AME-010/006)

Axintxo umea zela erle lanetan erabiltzen zituzten tresnak nolakoak ziren erakusten du. Orduan ere erleak kutxatan edukitzen zituzten.

214. Aspaldiko legea: enbor batean erleak aurkitzen zituztenean, enborra markatu eta erleak bilatu zituenarentzat (AME-010/007)

Erleak enborretan ere bilatzen zituzten. Nahiz eta arbola beste jabe batena izan erleak aurkitzen zituenak gurutzea egin eta berarentzat hartzen zituen. Erleak bilatzeko zituzten sistemak azaltzen ditu. Haritza eta pagoa dira erleen gustuko arbolak. Harri zuloetan ere aurkitu izan dituzte.

215. Erleak kutxan nola sartu eta eztea noiz eta nola kendu (AME-010/008)

Erleak gordetzeko kutxak etxean egiten zituzten. Erlea kutxan sartzeko kea erabiltzen zuten eta poliki ibili behar zen, derrigortu gabe. Garai batean esku larrurik ez zutenez eskuak eztiarekin igurtzi egiten zituzten. Kutxan barnean argizaria sartzen zuten. Eztea nola, noiz eta nondik kentzen zuten azaltzen du. Garai batean ilargiari erreparatzen zitzaion momentu aproposa noiz zen jakiteko. Erleei eguraldiak asko eragiten omen die.

216. Erleekin ibiltzeko erabiltzen zuten arropa eta tresnak (AME-010/009)

Erle lanetan ibiltzeko txapela berezi bati sarea jartzen zioten eta arropaz goitik behera tapatzen ziren. Eskuak berriz, eztiarekin igurtzi egiten zituzten. Garai hartan tresnak ez ziren edozein lekutan aurkitzen. Hauspoa izaten zen tresnarik garrantzitsuena. Kea nola botatzen zuten azaltzen du.

217. Hauspoa nola erabiltzen den erlei eztea kentzeko (AME-010/010)

Hauspoa erakusten digu eta haren erabilera azaltzen du. Erreginak besteei atakatzeko ordena ematen dienean kea botaz gero, mantsotu egiten dira. Behin animalia basati bat erleek nola hil zuten kontatzen du. Zenbait eta altuago igo erleak indartsuago dira, gogorragoak dira eta. Erleak beraien artean elkartuz epeltasuna lortzen dute eta horrela kumeak babesten dituzte.

218. Erleek leku berriak nola bilatzen dituzten (AME-010/011)

Erle kumea ateratzen denean ezta jan duenez mantsotuta egoten da. Batek lekua bilatzen duenean besteak abisatu eta denak atzetik joaten zaizkio. Hamabostean behin kutxak begiratzen dituzte. Erreginak markatuta izaten dituzte. Garai batean ez zituzten hainbeste tresna. Liburuak ere bazituzten erleez ikasi ahal izateko.

219. Erlategi berriak nola sortzen zituzten (AME-010/012)

Erlategi batetik beste bat sortzen ere asmatu zuten. Prozesu hura nolakoa zen azaltzen du. Erreginaren arrautzak zeintzuk ziren ezagutzen zuten. Ernalketa nola izaten zen azaltzen digu.

220. Erregina nola markatzen duten (AME-010/013)

"Zangano", "erle mando" edo "alper"rek ez dute ezirik egiten; erregina ernaltzeko izaten dira. Markatu gabeko erregina bilatzea zaila da. Behin aurkituz gero lepo gainean markatzen dute kontu handiz. Garai batean hori ez zuten egiten.

221. Erleak etxe inguruan edukitzen zituzten (AME-010/014)

Lehen etxean zazpi edo zortzi erlategi izaten zituzten, Tolosako bati erositakoak. Beti toki berean edukitzen zituzten. Denak etxe inguruan izaten zituzten. Erleak ezin dira erraz mugitu hasierako lekura bueltatzeko joera dute eta. Lehen ez zituzten erleak mugitzen, orain berriz bai.

222. Argizaria nola urtu eta ezta nola garbitu (AME-010/015)

Erleei ezta eta argizaria kentzen zien. Argizaria nola urtzen zuten kontatzen du. Ezta garbitzeko trapu fin batean pasatzen zuten. Argizaria lurrean ditzira ateratzeko erabiltzen zuten. Eguraldiaren arabera ezta desberdina izaten da.

223. Ezti argia ateratzen zuten (AME-010/016)

Eztiaren koloreari erreparatzen zioten nolakoa zen jakiteko. Bertako ezta argia izaten zen.

224. Erleen ziztadak saihesteko ezta; ziztada ondoren, ozpina (AME-010/018)

Ziztadak saihesteko eskuak eztiarekin igurtzi behar izaten ziren. Batek zizta eginez gero beste erle guztiak atzetik joaten dira. Ziztada jasoz gero ozpina erabiltzen zuten. Axintxon gorputza ziztada horietara ohituta dago. Lehen lokatza ere erabiltzen omen zuten. Okerrena ziztadak urratzea izaten da. Ziztada eman ondoren erleak hil egiten dira.

225. Erleen gaixotasunak (AME-010/019)

Lehen ez zen erleen gaitzik ezagutzen. Izaten zuten bakarra zorri txiki bat izaten zen, bizkar gainean eramaten zutena.

226. Erleekin lotura zuten ohiturak (AME-010/020)

Etxe batean norbait hiltzen bazen erleei kutxako atea ireki egin behar izaten zitzaizela esaten zuten. Erleek etxeko nagusia ezagutzen dutenik ez da egia. Erlea nola tratatu, horren arabera erleek erantzuten dute. Erleekin poliki ibili behar izaten da. Eztia kentzen zaien garaian azkar egin behar izaten da.

227. Erleen ohiturei begiratzeko (AME-010/021)

Garai batean liburuetan ikasi zuten erleei buruz. Begira egoten ziren erleen dantza ikusteko. Polena ekartzen zutenean gustura begiratzeko zuten.

228. Erleentzat kutxak etxean egiten zituzten (AME-010/022)

Erleen kutxak etxean egiten zituzten, gehienetan gaztainarekin. Gaztainari usteltzea gehiago kostatzen zitzaion. Erleei egur garbia ez zitzaion gustatzen eta argizaria jartzen zuten.

229. Erleak kutxan nola sartzen diren (AME-010/023)

Erleak kutxa berrian nola sartzen diren azaltzen digu. Oso polita dela dio. Sarearekin erleak nola harrapatzen zituen kontatzen du.

230. Erreginak agintzen du erleengan (AME-010/024)

Erregina bakarra behar izaten da eta hark agintzen du. Hori liburuetan ikasi zuten. Aitak berriz ez zekien horrelakorik, esperientzia besterik ez zeukan. Pertza jotzen zuten erleak bertan gelditzeko.

231. Eztia adituek bakarrik hartzen zuten (AME-010/026)

Lehen baserri askotan izaten zituzten erleak. Erleek leku batzuetarako joera izaten dute. Eztia kentzen ez zen edozein ibiltzen, horretarako adituak ekartzen zituzten. Amezketa Arbizutik etorritako bat ibiltzen zen lan horietan. Amezketa elizako zuloetan ere erleak izaten ziren. Azkenean zulo haiek itxi egin behar izan zituzten.

232. Aita hogeita hamabost urterekin hil (AME-011/002)

Aitak mekanika ikasi zuen soldadutzan, baina Amezketa paper-lantegian egiten zuen lan. Motor bat bere lekuan jartzen ari zela hil zen.

233. Aitak solfeoa irakatsi (AME-011/003)

Aitak elizan abesten zuen, baita saxofoia jo ere. Herriko jaietan bandarekin jotzen zuen hau, eta seme-alabei solfeoa irakatsi zien.

234. Musikaren munduan murgilduz (AME-011/005)

Amezketa errektorearen monagillo zen Pello. Haren ilobak Pello eta beste ikasle batzuk aukeratu eta arratsaldero musika irakasten zien. Ondoren, aitaren laguntzaz ikasitakoa egonkortu eta atzean utzi zituen ikaskideak.

235. Amezketa giroa (AME-011/007)

Amezketa harria eta Fernando Amezketa ziren herrian ezagunak. Igande arratsaldetan pilota partiduak egoten ziren, eta aitak nolabaiteko ospea zuen pilotan. Umeak ere "a fueras" jokura jolasu ohi ziren pilotarekin.

236. Etxean ezin ezkerreko eskua baliatu (AME-011/008)

Amak ez zion ezkerreko eskuarekin ezer egiten uzten, baina mojak, ordea, hori bekatutzat zuen. Familian, hala ere, gehienek ezkerreko eskurako joera zuten. Badirudi aitona errementariaren joera ere hori zela.

237. Hitz egiten ikasi zuenerako, irakurtzen bazekien (AME-011/009)

Amak fabrikan egin zuen lan, eta hogeita hiru urte zituela etxera joan zen. Denbora asko omen zuen etxean, eta Pellori irakurtzen irakatsi zion. Dotrina baliatuz ikasi zuen irakurtzen, eta ondorioz, sei urte zituenerako dotrina primeran zekien, buruz.

238. Amezketako harria ezin inork altxa (AME-011/011)

Amezketako harria Albitxuri baserrikoak hartu zuen errekatik. Dirudienez, ohe azpian gorde eta egunero-egunero altxatzen zuen. Kalera ateratzean inork ez omen zuen ateratzen, arik eta lortu zuten arte.

239. Hamar urterekin Arantzazura (AME-012/002)

Amezketan jaio bazen ere, oso gaztetan joan zen Arantzazura, hamar urterekin. Hala ere, baserritarren eta kaletarren arteko ezberdintasuna gogoratzen du.

240. "Elizakoa zen gure bizitza" (AME-012/003)

Elizaren presentziaz dihardu Pellok pasarte honetan, izan ere, elizako ospakizunak eta abar oso sarturik zeuden euren bizitzan: garizuma, dotrina, Aste Santua... Apaizarekin ordu asko pasatzen zituen Pellok, oso aurreraturik baitzegoen dotrinaren ikasketan.

241. Errektorea Arantzazuren kontrakoa (AME-012/004)

Amezketako errektoreak Pello Donostiako seminaria eraman nahi zuen, eta Pellok Arantzazura etorri nahi izana bekatua zen harentzat.

242. Arantzazura irteerak (AME-012/005)

Gurasoek lagun batzuk kamioi gidariak ziren, eta kamioietan sartuta joaten ziren Arantzazuko meza nagusia entzutera, bertako korua oso gustoko baitzuen aita.

243. Arantzazu lehen aldiz ikusi zuenekoa (AME-012/007)

Arantzazuren lehen oroitzapenak mahatsaren hostoak eta zeru urdinak ditu. San Inazio egunean ere amamarekin etortzen zen eta erretratua ateratzen zuten bertan.

244. Arantzazuko eliza zaharra (AME-012/009)

Arantzazuko eliza harra du gogoan Pellok, umetan ezagutu zuena. Bertan izan zuten azken meza. Eliza nola berritu zuten ere bizi izan zuen, ingurua langilez beterik ikasten zuten beraiek.

245. Oteizak ospelentzat ukendua eskatu (AME-012/010)

Neguan Oteiza eta bere emaztearekin egin zuten topo Pellok eta amamak, bazkaltzen. Pellok zituen ospelak ikusitakoan, Oteizak emazteari ukenduren bat emateko eskatu eta hala egin zuen.

246. Amonak euskaraz ez idazteko eskatu zion (AME-012/012)

Familiaren berri gutun bidez izaten zuen Pellok, eta behin amonak euskaraz ez idazteko eskatu zion, erdaraz idazteko baizik, ulertzen ez zuenez, erantzun beharrik ez zuela horrela.

247. Euskarazko liburuak irakurri, euskara ez galtzeko (AME-012/014)

Lagunartean euskaraz egiten bazuten ere, gaztelaniaz egiten zuten gainontzeko dena. Arantzazura iritsi baino lehen, Beasainera joan behar izan zuen gaztelania ikastera. Euskara elizako sermoian besterik ez zuen entzuten. Euskara ez galtzeko, euskaraz idatzitako liburuak irakurtzen zituen.

248. Errekrea euskara gogoratzeko baliatu (AME-012/015)

Arantzazuko ikasketetako hirugarren urtean ohartu ziren ikasleetako batzuek euskara ahazturik zutela, eta errekreoan euskaraz hitz egiteko agindu zieten, gal ez zezaten. Euskara ezberdinak ezgautu zituen horrela Pellok.

249. Astean ordutebete euskaraz (AME-012/016)

Aste osoko eskolen artean, ordu bakarra eskaintzen zioten euskarari. Koaderno bat zuen Pellok, euskarazko erredakzioak bertan egiteko. Dotrinako grafia zuen berak euskaraz, ordea, eta zuzenketa mordoa egin zizkion.

250. Salvatore Mitxelena ezagutu zuenekoa (AME-012/018)

Franziskotar zenbaitek alde egin zuen Euskal Herritik, bertan bizi zen zentsura eta zapalkuntza zela eta, haien artean Salvatore Mitxelena eta Eugenio Agirretxe.

251. Zenbait kontu Gandiagari buruz (AME-012/020)

Gandiaga gertutik ezagutu zuen Pellok. Krisialdi zenbait izaten zituen honek, konfesionarioraren kontuarekin batez ere. Berpizte nolabaiteko bat izan zuen, eta musika munduan murgildu zen.

252. Arantzazuko bilera klandestinoak (AME-012/022)

Jakin sortu zutenek eman zuten meza Pello nobizio zela. Garai hartako euskal giroa nola bizi zuen kontatzen du Pellok pasarte honetan. Txomin Agirre eta Axular irakurri zituen, euskara lantzeko baina ildo espiritualetik.

253. Villasanteren fitxak zapata kaxetan (AME-012/023)

Axularren hiztegia egiten lagundu zioten Villasanteri. 66.urtean egin zen Euskaltzaindiaren bileran Pellok Juan Bautista Agirreren hiztegia aztertzeko lana egin zuen, Villasantek aginduta.

254. Jakinen sorreran egindako lanak (AME-012/025)

Oliten pasa zuen denboraldiak Jakin aldizkariko egutegi kontuak eramaten zituen Pellok, bainta Gure Izarrako kontuak ere. Geroago bileretara joaten hasi zen, beste apaiz gazte batzuekin batera.

255. Intxaustiren adar jotzeak (AME-012/026)

Jakineko bileretan ezagutu zuen Joseba Intxausti. Honek adarra jotzen zien gainontzekoei bileretan, "Peninsulares" zirelakoan zigarro kaxan tabako rubioa baitzuen.

256. Joxe Azurmendiri buruzkoak (AME-012/029)

Joxe Azurmendi ikasle zela ezagutu zuen Pellok. Gure Izarra aldizkaria handitu nahi izan zuen Azurmendik, eta orrialde mordoa ateratzea lotu zuten. Oso literaturzalea zen hau, eta afizio hau piztu zuen Pelloren gain.

257. Joxe Azurmendik, ikasteko erraztasuna (AME-012/031)

Behin irakasleak galdetu zion Joxe Azurmendiri. Ongi erantzun zien galderei, baina irakaslea segituan konturatu zen ikasi gabe bazekiela.

258. Eguraldiaren iragarpenak egiten hasi (AME-012/033)

Euskadi Irratian musika kontuak ematen zituen, eta gero eguraldia ematen hasi zen, euskarazko edukia sartzeko helburuz. Euskal Herriko toki gutxi batzuetako jendea hasi zen eguraldia iragartzeko, baina azkenean Pellori egotzi zioten.

259. Irratiko lana, gogorra (AME-012/034)

Eguraldiaren iragarpena denbora gutxian egin behar izatea, eta gainera egunean sei alditan, gogorra egin zitzaion Pellori. Baserritarrei begira egiten zuena zen, eta haiei lagundu nahiagatik eskaini zuen bere burua hala egiten jarraitzeko.

260. Tenporen teoria, nondik? I (AME-012/036)

Tenporei buruzko informazio funtsezkorik ez du topatu Pellok, horregatik berak hartu zuen teoria garatzearen ardura. Eguraldiak ilargi osoarekin zuen lotura aurkitu eta landu egin zuen edukia.

261. Tenporen teoria, nondik? II (AME-012/037)

Ilargiaren nondik norakoa aztertuta, tenporen zikloa ulertu zuen Pellok.

262. Esaera zaharrak eta eguraldia (AME-012/039)

Eguraldiari buruzko esaera zaharrek ez dute beti asmatzen, urtez urte eguraldia asko aldatzen baita.

263. Juan Migel Orkolagaren iragarpenak (AME-012/041)

On Juan Migel Orkolagak afizio handia zuen eguraldia iragartzeko. Honetarako tresnak sortu zituen, baita itsasgizonen iragapenak aztertu ere. Behin ekaitza zetorrela iragarri zuen, baina ez zuen informazioa Bizkaira pasa. Hortaz, Bizkaiko itsasontziak irten eta marinel asko hil ziren.

264. Kanpai bidez eguraldiaren iragarpena (AME-012/042)

Juan Miguel Orkolagak eguraldia iragartzeko metodoa lurrerako baliatzen hasi ziren, batez ere baserritarrei bideraturik.

265. Mandoak, meategiko garraiolaria (AME-013/002)

Mandoak erabiltzen zituzten meategietara beharrezkoa zutena garraiatzeko: materialak, elikagaiak, lanabesak... 60. hamarkadan meategia zabalik egon zen arren, aurretik itxita egon zeneko sasoia egon zirela dio; jabe desberdinek ustiatu omen dute.

266. Meategiaren historia: kobrea eta pirita nagusiki (AME-013/004)

Meategitik kobrea eta pirita ateratzen zuten gehienbat. XIX. mendean egitura garrantzitsua zegoen meategiaren inguruan. Azken urteetan egindako azterlan handi bati buruzko azalpenak ere ematen ditu; ondorio haiek, ordea, ez zuten jarraipenik izan. Dokumentazio asko omen dago jasota meategiari buruz.

267. Paper-fabrikaren hastapen apalak (AME-013/006)

Paper-fabrika 1935ekoa da. Hastapenetan, oso oinarritzko zerbait zela kontatzen du; egun irudikatzen dugun moduan, 70. hamarkadatik aurrera sortu zen. Herriko abizen nafarrak paper-fabrikara lanera etorritako jendearenak dira.

268. Amezketa "jauntxoak" (AME-014/001)

Amezketa lehen eta orain. Medikua bila astoan joaten ziren, hau baserrira animalian igotzeko. Herriko "jauntxoak" apaiza, alkatea, idazkaria eta medikua ziren agintzen zutenak. Bazkalosteko musean zebiltzala gertatutako anekdota kontatzen du.

269. Artzainen kontuak; mugak (AME-014/002)

Artzain baten anekdota, ardiak Nafarroara pasatu zitzaizkionean eta bahituta gelditu zirenean. Ardiak berriz ere lortzeko pagatu behar izan zuen. Geroago, herri batzuk elkartu egin ziren eta ardiak larreetan libreago ibiltzen hasi ziren.

270. Gaztak larunbatetako azokan salgai (AME-014/003)

Larunbatetan artzainek azokan gazta saltzen zuten. Ostiraletan, osabarengana joaten zen, hurrengo egunean azokan salduko zituzten gaztak prestatzen laguntzera. Gainontzeko egunetan, etxetik bertatik saltzen zituen gaztak.

271. Amezketa izenaren jatorria (AME-014/004)

Amezketa izenaren jatorria. Amezketa eta inguruko herrietan dagoen basoa eta zuhaitz-motak.

272. Amezketan artzain asko egon dira beti (AME-014/005)

Amezketa artzainen herria izan da beti. 200 ardi inguruko artaldeak izaten ziren, baina hori gaur egun gutxi da. Paper-fabrikak modernizatu egin zuen herria.

273. Pazkozkoa egiteko dotrina eta kredoa buruz ikasi behar (AME-014/006)

Elizaren eragina asko aldatu da Amezketan. Garia batean, dotrina ikasi behar izaten zen. Galderak eta erantzunak buruz ikasi behar izaten zituzten. Euskaraz ikasi zuen dotrina. Dena ondo ikasten bazuten, txartel bat ematen zien abadeak, Pazkozkoa egiteko. Asko begiratzan zen Pazkozkoa nork egiten zuen eta nork ez.

274. Egunero babarrunak jaten ziren (AME-014/007)

Txerria hiltzen zenean, zatirik hoberenak medikuari eta pertsona garrantzitsuei eman behar zitzairen. Elikadura asko aldatu da garai batetik hona. Urte guztian zehar jaten zituzten babarrunak. Txerriak ere jaten zituzten, taloa, gazta, esnea...

275. Eskolako kartila eta katona (AME-014/008)

Eskolan kartila eta katona ikasten zuten. Katona ikasi ondoren, ikasketak amaitutzat ematen ziren eta baserriko lanetan aritzen ziren haurrak.

276. Hamabi urterekin baserrian lanean (AME-014/009)

Baserri batek bi idi eta dozena bat ardi bazituen, baserri ona zen. Goldearekin nola ibiltzen ziren. Bizimodu gogorra zen.

277. Dantzak eta neska-laguntzea (AME-014/010)

Garai batean Txanboliñak musika jotzen zuen eta neskekin dantza egiten zuten eta etxera laguntzen zieten. Dena bekatua zen orduan.

278. Gazteleraz hitz egiteagatik jasotako zigorrak (AME-015/003)

Gazteleraz izaten ziren eskolak. Bizitzako zigorrak gehienak euskaraz mintzatzeagatik jaso izan dituela kontatzen du: 225 aldiz "en la escuela hablaré español" kopia zea, adibidez.

279. Eskola eta eliza, eskutik helduta (AME-015/005)

Jolas-orduaren ondoren apaiza joaten zitzairen ikasgelara eta, eskola amaitu ostean ere, elizara joan behar izaten zuten egunero. Larunbatetan, konfesatzera joaten zirela dauka gogoan.

280. Jai egunak: meza, mantelina eta gramola (AME-015/007)

Jai egunetan, lehenengo lana mezetara joatea izaten zela dio. 6etan, 8etan eta 10etan egoten ziren mezak. Mantelina jantzita joaten ziren. Igande arratsaldeetan, bezperetara joaten ziren eta, haren ostean, musika jartzen zuen apaizak gramola batekin.

281. Bedaioko errekan amuarrainak arrantzatzen (AME-015/008)

Amuarrain asko zegoen Bedaiotik zetorren errekan, baina ez Amezketatik zetorrenean, paper fabrikak zikintzen baitzuen ur hura. Inguruko herrietatik ere etortzen ziren arrantzara.

282. Oporrak, jolasean edo inguruko baserrietan laguntzen (AME-015/009)

Eskola-opor garaian ez zegoen aldaketa handiegirik eguneroko bizitzan. Jolasean ibiltzen ziren edo inguruko baserrietan laguntzen.

283. Artoaren inguruko kontuak (AME-015/010)

Artoa zuritzen zutenean, arrosarioa errezatzen zutela dio. Artoaz, artaburuaz, hostoez eta gainerako atalen izenen inguruan dihardute.

284. Ogia egiteko modua (AME-015/013)

Ogia egiteko oreia, eskuekin landuz egin beharrean, umeak gainean saltaka jarritz egiten zutela kontatzen du. Baserri bakoitzak zuen, astean behin, ogia erretzeko labea. Nola egiten zen.

285. Arrainduna bizikletaz eta turuta joaz etortzen zen (AME-015/014)

Enkarguak herrian bertan egiten zituzten. Arraina, adibidez, atoia zeraman bizikleta batean ekartzen zuten eta handik bertatik erosten zutela kontatzen du. Turuta jotzen zuen iristen zenean. Zein arrain mota saltzen zuen.

286. Eguneroko jatorduak (AME-015/015)

Babarrun gorria eta baratzeke barazkiak jaten zituzten egunero. Haragia eta arraina ez ziren batere ohikoak izaten. Baserrietan txerrikia izan zitekeen urtean behin hil eta gazitutako haragiari esker. Gazitutako haragia heltzerako erabiltzen zela diote. Amak, Tolosan erositako gozokiei buruzko oroitzapenak.

287. Bedaiotik zetorren errekek eragindako kalteak (AME-015/018)

Tolosara bizitzera joan zireneko kontuak. Aldaketa nabarmena izan zela dio: garbigailua, argindarra egonkorragoa, erreka beldurrik ez... Txikiak zirela, uholdeen ondorioz jasandako kalteak dakartza gogora.

288. Lantegiko lanak: metalezko poteak egitetik paper-fabrikara (AME-015/020)

Hasieran, kontserba-latak, metalezko poteak eta antzekoak egiten zituzten makinetan egiten zuen lan Tolosako fabrika (Fabrensa). Prozesuari buruzko azalpenak ematen ditu. Paper-fabrika jardun zuen geroago; hango lana arinagoa zen: paperak akatsik izan ez zezan arduratzen ziren.

289. Euskara, lanerako hizkuntza ere (AME-015/021)

Tolosan ere, ez zuten arazorik izan euskaraz hitz egiteagatik. Lantokian ere euskaraz jarduten zutela kontatzen dute. Garai hartan, paper-fabrikakoa izango zen gutxien ordaindutako lana, eta, denbora faltagatik normalean, baserritarrak izaten ziren lan hura hartzen zutenak. Ez da harritzekoa, beraz, lantokiko euskal giroa.

290. Enkarguak egitera Tolosara autobusez (AME-015/022)

Enkarguak nola egiten zituzten. Pisuan erosten zuren: libra bat lenteja, libra bat haragi, ehun gramo kafe, eta abar. Autobusez joaten ziren Tolosaraino. Bidaia ari kopuruaren arabera, ordutegiarekin gorabeherak egon zitezkeen. Oiloak, untxiak, arkumeak... denetik garraiatzen zen autobus hartan.

291. Ijitoak eta Sakamantekas ziren beldurra eragiten zietenak (AME-015/025)

Etxeko atea ez zen sekula ixten garai hartan. Ijitoen beldur izaten zuten ordea; zerbait harrapatu zutela entzuten zen noizean behin. Errespetu handia zitzaiela daukate gogoan. "Sakamantekas" ere ijitoekin batera ibiltzen zela uste zuten.

292. Eskolatik irtendakoan umeak zaintzera (AME-015/026)

7 urtetik aurrera, eskolatik irtendakoan, umeak zaintzen geratzen ziren etxe batean. Eguerdian eta arratsaldean geratzen ziren, bazkariaren truke normalean. Dirurik ez zuten irabazten.

293. Ilea apaintzeko lehengo moduak (AME-015/028)

Ile-apaindegian nola moldatzen ziren azaltzen du: erreka-ura ekartzen zuten iturriko uraren faltan, ruloak jarri, burua labean sartu berotzeko, ilea kardatu... Hori guztia sinestezina iruditzen zaio gaur egun.

294. Goserik ez baina, egunero izaten ziren babarrunak (AME-015/031)

Goserik ez zuten pasa, baina, elikagai aukera falta, bai. Babarrunak zituzten egunero jateko. Kutixirik, bat ere ez. Arraina ere jaten zuten aldian behin. Garbantzua eta oiloa, jai egunetarako gordetzen ziren.

295. Oinutsik artzai eta apraketak igandeetarako (AME-016/002)

200 ardiko artaldea zuten etxean. Baserritik bizi ziren. Oinutsik ibiltzen zela kontatzen du, izan ere, apreta pare bakarra baitzuen, eta hura igandeetarako gorde behar izaten zuen, amak esaten zionez.

296. Artzainaren bizimodua: mendia eta txilar-kamaina (AME-016/003)

Artzainaren lanari buruzko azalpenak. Maiatza hasieratik San Martin egunera bitartean (azaroaren 11) egoten ziren ardiak mendian. Artzainak etxera etortzen ziren lotara; gazta egin behar zen garaian, ordea, mendian geratzen ziren. Txilarrarekin egindako kamainan egiten zuten lo.

297. Gazta egiteko prozesua (AME-016/004)

Gazta egiteko prozesuaz ari da. Ardiei jezten zitzairen esnea marmita txikietan biltzen zuten. Txabolan, gatzagia gehitzen zitzaion esnari, epela zegoen bitartean. Gatzagia, bildotsen urdaila lehortzen jarrita lortzen da; puska txiki bat nahikoa izaten da. Zumitzera eramaten zuten gero, handik prentsara eta harria jarri... Tolosan erositako zetazko trapu berezi batekin biltzen zituzten gaztak prentsarako. Gaztak egin ostean, egur hezeekin piztutako sutan ketzen zituzten, Tolosarren gustura.

298. Larunbatero azokara, gaztak eta arrautzak saltzera (AME-016/005)

Autobusean joaten ziren azokara larunbatero Amezketatik. Goizean joan eta, bazkalordurako, etxera itzultzen ziren. Gaztak eta arrautzak eramaten zituzten saltzeko. Gaztaina-denboran, bi zakukada gaztaina ere eraman ohi zituen Antonioren amak. Astoa kargatzen zuen aurrena, baserritik autobuseraino, salgaiak eramateko.

299. Bildotsak jaiotzean, ardiari lagunduz (AME-016/007)

Urtarrila amaieratik aurrera jaiotzen ziren bildotsak. Ardiari lagundu egin behar izaten zitzaion batzuetan; nola izaten zen kontatzen du. Muturrean dakarren mintza garbitzea komeni da, ardiak berak kentzen ez badio behintzat. Ardiak bildotsa apartatzen duenean zer egin behar den azaltzen du.

300. Bildotsak hiltegira ardiak lagun (AME-016/008)

10 kilo inguru behar ditu bildotsak hiltegira eramateko. Lau ardi, mantso xamarrek eta bildotsak eraman ohi zituen aldiko. Ardiak, bildotsei laguntzeko baino ez ziren.

301. Behi-zaintza eta esne-salmenta (AME-016/010)

Artzain izan aurretik, behiak zaintzen zituen umetan. 5 behi zituzten. Sorora ez joateko zaindu behar izaten zituzten. Esne-behiak ziren; kalean saltzen zuten esnea. Hiru ordu laurdeneko bidea zuten Larramendi baserritik kaleraino. Astoz garraiatzen zituzten marmitak.

302. Igaratzako ermitaraino korrika nor lehenago (AME-016/011)

Korrikalaria zuen anaia, nahiz eta berak aisa irabaz ziezaiokeela uste duen. Igaratzako ermitaraino korrika nor lehenago igo apustu egin zuen behin anaiak eta irabazi egin zuen.

303. Eskolako bidean gaztainak jaten (AME-016/013)

Umetako gaiztakeriak dakartza gogora. Eskolara bidean gaztainak jaten geratzen zirenekoa kontatzen du: amari pospoloak harrapatu eta gaztainak erretzen zituzten jateko. Hamabiak jotzen zutenean, etxera itzuli eta, goserik izaten ez zutenez, babarrunak jateko keinua eginez ama engainatzen zuten.

304. Hiru amezketar hil ziren frontean (AME-016/014)

Gerra garaian Amezketan tiro-hotsik egon ez zen arren, frontean hil ziren hiru amezketar gogoan dauzka.

305. Arto-zuritzea (AME-016/016)

Ganbaran zuritzen zuten artoa. Arto-zurikina behiei ematen zieten. Garia ere ereiten zuten. Sei hilabetetarako ogia egiteko lain izaten zutela kontatzen du. Gainerakoan, kaleko ogia edo taloa.

306. Errotarik gabe, mugaz bestaldera joan behar (AME-016/017)

Gerraostean, errotak itxita egon ziren sasoian, mugaz bestaldera, Nafarroara, joaten ziren irina egitera, zakuak asto gainean hartuta.

307. Baserriko abereen elikadura (AME-016/018)

Baserriko abereek zer jaten zuten azaltzen du: artoa, zerriei eta oiloei ematen zitzairen batez ere; ganaduarentzat, berriz, arbia eta belarra.

308. Garoa zein orbela behien azpiak egiteko (AME-016/020)

Garoa zein orbela erabiltzen zituzten behien azpiak egiteko. Herri-basotik, gurdiz ekarri behar izaten zuten garoa. Urruti geratzen zitzaenez, orbela erabiltzea erabaki zutela kontatzen du.

309. Laiekin lurra jiratzea, lanik gogorrena (AME-016/021)

Baserriko lan guztietan gogorrena, laiarekin lurra jiratzea dela iruditzen zaio. Gizonezkoak eta emakumezkoak aritzen ziren laian. Arrebarekin gertatutako pasadizo bat dakar gogora.

310. Txerria hitzen zutenekoa (AME-016/022)

Harakinari saltzen zizkioten etxean jaiotako txekorrak. Txerrikumeak ere saltzen zituztela kontatzen du. Urtean behin, txerria hiltzen zuten etxerako. Harakina etortzen zen horretarako, edo, beste baserrietako gizonak ere ibili ohi ziren laguntzen. Txorizoa eta odolkiak egiten zituzten. Urdaiazpikoa, ganbarako kutxan gatzatzen zuten. Hamabost egunean behin buelta eman eta gazberritu egiten zen. Harriak ipintzen zitzaizkion gainean, gatza hobeto har zezan.

311. Gabon eskeak eta kantuak (AME-016/026)

Mutil-koxkorretan etxez-etxe eskean ibiltzeko ohitura zuten Gabonetan. "Gabon bezpera" abesten du.

312. Maisu erdaldunaren tranpa eta zigorrak (AME-016/029)

Maisu erdaldunaren zigorrak gogoratzen ditu. Behin, makila politak ekartzeko eskatu zion, eta Antoniok hurriz-makila ederrak eraman zizkion. Ez zekien, ordea, gero makila haiek zigortzeko erabiliko zituenik.

313. Lutoa gertutik ikusitako familia (AME-017/002)

Azintzintxiki etxean jaio zen Joxe Mari. Oso txikia zen hau, eta errentan zegoen han bere familia. Zortzi urte zituela hil zen bere aita, eta handik gutxira arreba.

314. Txirrindularitza aldizkari bidez ezagutu (AME-017/003)

Aita eta bi anaia artzainak ziren. Liburu gutxi izan ohi ziren etxean, eta txirrindularitzari buruzko pare bat aldizkari.

315. Eskolaren hutsunea (AME-017/004)

Urte gutxi joan zen Joxe Mari eskolara, neguan askotan artzain joaten baitziren familian. Gehienbat udaberrian eta udazkenean joaten zen. Artzaintzak presentzia handia izan zuen bere haurtzaro osoan zehar.

316. Azintzintxiki etxeko giro goxoa (AME-017/005)

Azintzintxiki etxea nolakoa zen azaltzen du Joxe Marik pasarte honetan. Txikia zenez, neguan errazagoa zen berotzea.

317. Aitaren artzain bizimodua (AME-017/007)

San Bartolometan osaba-izebak euren etxera joan ohi ziren. Zenbait urtetan aita ez zen artzain lanetatik etxera itzuli, ardiak garai hartan umatzen zirelako.

318. "Aurrerapenek eta liburuek ekarri behar dute hondamendia" (AME-017/008)

Aitaren ezizena "garaiko handi" zen, eta Joxe Mariri umetan "Garaiko txiki" deitzen zioten". Zortzi urte zituen aita hil zenean. Aurrerapenak eta liburuak hondamenditzat zituen aitak. Joxe Mariren gurasoak Hondarrabin ezagutu ziren.

319. Amak komunikazioari buruz irakatsitakoa (AME-017/009)

Amarengandik ikasi zuen komunikazioaren garrantzia. Behin gotzain bat Abaltzizketara joan eta bertara joan ziren elizara. Amaren iritziz, gotzain hark ez zuen hitz-jariorik.

320. Azintzintxikitik mendiko txabolara (AME-017/010)

Azintzintxikitik aitarekin txabolara joatea oso gogorra egiten zitzaion Joxe Mariri. Etxetik astoa hartuta gatz-ur bila joaten zen egunero-egunero. Etxeko esaera bat izan ohi zen, "galduta bahago, segi astoari" zioena.

321. "Erraza dek besteek egindakoa saltzen" (AME-017/011)

Arrazoi ekonomikoak zirela eta, aita hil ondoren haren artaldea saldu zuten.

322. Tolosako Kolegiora ikastera (AME-017/012)

Aita eta arreba hil zirenean, artaldea saldu eta Joxe Mari eskolara bidaltzea erabaki zuten etxean. Tolosako Kolegiora joan zen 1958an. Bertan asko sufritu zuen, gaztelaniaz egin behar zuelako, eta amaren janaria faltan zuelako.

323. Kolegioan gaztelania eta janari eskasa (AME-017/013)

Tolosako fraideetara ikastera joan zenean asko sufritu zuen Joxe Marik, gaztelaniaz egiten baitzen han dena, eta janaria ez baitzen etxekoa bezain ona. Lehenengo gutunak euskaraz egin zituela oroitzen du, eta urtebetean hamahiru kilo galdu zituela.

324. Kultura aldeko gabeziak (AME-017/014)

Tolosako Kolegioan konturatu zen erreferentzia kulturalk ez zuela solfeorik ere ez zekiela. Batxillerreko lehenengo eta bigarren maila urte batean egin zituen, eta estresak eraginda argaldu zen hamahiru kilo.

325. Kolegioko urteak oso baliotsuak (AME-017/016)

Tolosako seminarioan ikasitakoa oso baliotsua izan da Joxe Marirentzat, batez ere aurretiaz zuen gabeziagatik. Giza balioei ere garrantzia handia ematen ikasi zuen bertan.

326. Madrilgo kazetaritza ikasketak, kaskarrak (AME-017/017)

Ikasketak amaitutakoan krisi moduko bat izan zuen, ez baitzekien bizitzaren nondik norakoa zein zuen. Madrilera joan zen bi urtez, kazetaritza ikasketak egitera.

327. Betidanik kazetaritza gustoko (AME-017/019)

"Umeen deia" aldizkari bat zen, eta hamabi urte zituela lerro batzuk idatzi zituen aldizkari hartarako. Beste behin, elkarrizketa bat ere egin zuen. Komunikazioa zeharka ikasten zuten seminarioan.

328. Loiola Irratiko langile (AME-017/020)

Madriren bi urtez egon zen ikasten, eta kazetari gisa lan egiteko probetan ezin parte hartu, eta Loiola Irratian hasi zen lanean. Bertan ikasi zuen komunikazioari buruzko gauza mordoa.

329. Euskadi Irratiaren sorrera (AME-017/021)

1982an Euskadi Irratia zuzentzeko aukera sortu zitzaion, eta ilusio handiz hartutako lana izan bazen ere, honen sorrera ez zen erraza izan. Bederatzi bat urte egin zituen bertan, eta ondoren telebista munduan murgildu zen.

330. "Telebista eskola bat izan da" (AME-017/022)

Telebistan asko ikasi zuen Joxe Marik. Euskal Telebista oso indartsu ibili zen urte batzuetan zehar.

331. Amezketatik Madrilerako aldaketa (AME-017/024)

Deustoko unibertsitatean ikasten ari zenez, hiria ezagutu zuen, eta Amezketatik Madrilerako aldea ez zitzaion hain gogorra egin. Hala ere, Madrilgo jendea oso ezberdina zela sentitzen zuen, eta bikotea euskalduna izango zela argi zuen.

332. "Txikikeriaren mugagabetasuna" (AME-017/025)

Amezketak maite zuen oso, nahiz eta gaztetan handik alde egina izan. Jaioterriaz informazioa jaso eta haren inguruan idazten hasi zen Joxe Mari. Amezketako historian murgiltzen hasi eta harriturik gelditu zen honen aberastasun eta zabaleran.

333. Benetako Fernando Amezketarra (AME-017/026)

Fernando Amezketarrari buruzko liburutxo bat atera zuen Joxe Marik, baina errealtatearen ikusmiratik.

334. Amezketaren historia (AME-017/028)

Amezketari buruzko informazioa jasotzen hasi zen Joxe Mari, eta historia luzearekin egin zuen topo. Oinaztarren alde egin zuten amezketarrek. Nafarroarekin ere harremana izan du, eta geroago Tolosarekin bat egin zuen.

335. Fernando Amezketarraren garaiko Amezketa (AME-017/029)

Fernando Amezketarra jaio aurretik Amezketako eliza bukatu eta udalak bere udaletxea lortu zuen, Tolosatik bananduta. Poliki-poliki artzantza indartzen joan zen herrian.

336. Arritzagako meategiaren ondorioak (AME-017/030)

Amezketara iraultza txiki bat ekarri zuen meategiak, kanpotik jende asko etorri baitzen ingurura. Paper-fabrikak ere auzi bera ekarri zuen herrira.

337. Paper-fabrikaren eragina (AME-017/031)

Paper fabrikak ohitura berriak ekarri zituen herrira, esate baterako, txandaka lan egitea, sirenaren hotsa lan orduak amaitu edo hasi direla adierazteko, soldatak... Emakume asko lanean jarri zituen lantegiak.

338. El Quijoten Amezketari erreferentzia (AME-017/033)

Harrigarria iruditu zitzaion Quijoten Amezketarrak agertzea. Juliana Amezketaren historiak bereziki hunkitu zuen Joxe Mari.

339. Amezketa, Euli-herri? (AME-017/034)

Barojak Euli-Herri deitzen zion Amezketari.

340. Amezketak herri-egitura berezia (AME-017/036)

Amezketako eliza, gaur egungoa, bigarrena da. Honen gainean bigarrena eraikitzea erabaki, eta horregatik dago bertan kokatuta.

341. Amezketako auzoak (AME-017/037)

San Martin auzoa oso aspaldikoa dela dio Joxe Marik, izaera propioa zuten etxeak zeuden bertan.

342. "Fernandok egin gaitu amezketar" (AME-017/039)

Euskaldunen artean Amezketa Fernando Amezketarrak zabaldu zuen. Pobrea izan zela pentsa daiteke, maizterra. Artzain lanetan ere aritu zen. Iztuetaren ordeztatu zuen Fernando Amezketarra Billabonako bertso saiora.

343. Fernandoren irudia zikinduta (AME-017/040)

Denboran zehar Fernandoren irudia nola zikindu den kontatzen du Joxe Marik pasarte honetan, baita Fernandoren ipuin gustokoena.

344. Fernando Amezketarraren heriotza (AME-017/042)

Zalantzan jartzen du Joxe Marik Fernando Amezketarraren heriotzaz esaten dena. Ziur aski, hesteetako gaixotasun batek eraman zuen haren bizitza.

345. Fernando Amezketarra, alferra? (AME-017/043)

Joxe Marik bere liburuan azaltzen duen bezala, hamaika lan izan zituen Fernandok. Izan liteke Fernandori buruzko istorio faltsuak bezalaxe, alfer fama hori ere faltsua izatea.

346. Fernando Amezketarra kartzelan (AME-017/045)

Fernando Amezketarra bi ardi lapurtzeagatik harrapatu zituzten. Ondorioz, urtebete inguru pasa zuen kartzelan.

347. Zer dira tenporak? (AME-018/002)

Tenporak zer diren eta norengandik ikasi duen. Neurketak nola egiten dituen. Haize-motak. Azkeneko haizea beti da garrantzitsuena.

348. Tenporak nola ulertu (AME-018/003)

Larunbateko tenporak hurrengo hilabetearen eguraldia markatzen du. Gertatu daitezkeen egoera ezberdinak aipatzen ditu. Ilargia tranposoa da.

349. Hilberako ostirala aldrebesa da (AME-018/004)

Baserritarrek esaten du hilbeherako ostirala aldrebeskoa dela. Pellok ez zuen sinisten hori, baina orain bai. Arrazoiak aipatzen ditu.

350. Tenporak eta datak (AME-018/006)

Tenporak begiratzeko Zaragozako egutegia begiratu izan du, baina Julian izeneko batek, elizako liburua eraman zion eta bertan agertzen zen noiz begiratu behar ziren tenporak. Irratitik tenporak ematen dituenengan, beti eztabaida sortzen da.

351. San Miguel eta San Juanetako tenporak (AME-018/008)

San Miguel eguneko tenporak nola identifikatu. San Miguel eguna asteko zein egunetan jausten den arabera dira hurrengo tenporak. San Juanetako tenporak.

352. Tenporak, errealak ala faltsuak? (AME-018/009)

Aretxabaletako emakume batek behin esan zion tenporak faltsuak izaten direla. Pelloren ustez, egiazkoak izaten dira baina noiz irakurtzen direnaren arabera gauzak asko aldatzen dira.

353. Elizako egutegiak markatzen dituen tenporak (AME-018/010)

Elizako egutegiak markatzen dituen tenporei buruz.

354. Tenporak IV. mendetik irakurtzen dira (AME-018/011)

Liburu liturgikoak kontsultatuz jakin izan du IV. mendetik gutxienez irakurtzen direla tenporak. Gizakia beti egon da eguraldiari lotuta. Elizak, jendeak eguraldiaren irakurketaren gainean zuen debozioa ikusita, bereganatu egin zuen jarduera. Horregatik, tenporak zerbait elizkoia bezala ulertzen dira.

355. Tenporak begiratzearen jatorria nondik dator? (AME-018/013)

Egutegi liturgikoa ezarri baino lehenago, baserritarrek bazituzten tenporak begiratzeko egun finko batzuk. Hiru festa edo tenpora zeuden, ez lau. Haizeari erreparatzen zioten, ez eguraldiari. Ilargiari ere begiratu izan zaio baserriko lanetan.

356. Hego haizearekin lotutako tenporak; ilargia (AME-018/014)

Hego haizearen presentzia nabarmena izan den zazpi tenpora egon dira jarraian. Arrazoi posibleez hitz egiten du Pellok.

357. Ilargiak frenteei eragiten die (AME-018/015)

Ilargiak frenteei eragiten die, hauek mantsotuz. Adibideak jartzen ditu.

358. Eguraldia eta baserriko lanak (AME-018/016)

Bere ustez, baserritarrentzat nahiko zen jakitea 2-3 eguneko eguraldiaren iragarpena. Horren arabera lanak moldatzen zituen.

359. Aita Ameriketara 20 urtez lanean (AME-019/002)

Aita Ameriketara ibili zen lanean 20 urtez. Langabezia handia zegoen hemen. Gerra Zibila bukatuta Amezketara bueltatu eta ezkondu egin zen. Errentan bizi ziren Amezketatik ordubetera oinez zegoen baserri batean. Ez zegoen asfaltozko biderik hara iristeko, baina igandero goizeko 6,30etako mezetara joaten ziren.

360. Baserriko bizimodu gogorra (AME-019/004)

Ura ontzietan eramaten zuten baserria, ur-korronterik ez zutelako. Haien baserrian eta ingurukoetan ez zegoen argirik. Erropak garbitzen eta lehortzen lan handia egiten zuten amak eta ahizpek.

361. Zutik eramatekoa esku-ohearekin menditik (AME-019/005)

Gaixo bat herrira eramateko, zutik eramateko esku-ohe bat erabiltzen zen. Askotan, bideetatik ere ez zen pasatzen.

362. Arropak lisatzen argindarrak gabe (AME-019/006)

Arropak lisatzeko ez zuten argindarrak eta beheko suaren txingarrak sartzen zituzten plantxaren barruan. Beste batzuetan ekonomikaren gainean berotzen zen eta askotan oso beroa egoten zen.

363. Baserriko bizi-baldintza oso txarrak (AME-019/007)

Baserria herritik oso urruti zegoen. Hamasei baserriz osatutako auzunea zen. Inguruko pinadiak paper-fabrikara bideratzen ziren. Bizi-baldintzak baserrian oso txarrak ziren. Lurra goldearekin prestatzen zen, behiekin lagunduz.

364. Pinuak diru asko ematen zuen (AME-019/009)

Pinuak botatzearan jendeak diru asko irabazten zuen. Harakinek diru asko omen zuten. Sagarrondo ugari zeuden garai batean, baina askok kendu eta pinuak sartu zituzten. Gaur egun, pinuak gaixorik daude.

365. Afrikan ondo bizi omen dira (AME-019/013)

Soldaduzka Afrikan egin zuen. Buruan oihalak jartzen zituzten eta oinutsik ibiltzen ziren. Gazteagoa balitz, Afrikan bizitzea gustatuko litzaioke.

366. Soldadutza Aaiunen (AME-019/015)

Aaiun (Marokon) egin zuen soldadutza, Villa Cisneros deitzen zaion lekuan. Inguruak nolakoak ziren eta jendea nola bizi zen kontatzen du. Desertua.

367. Baserrian hilotza gaubeilatzen (AME-019/026)

Baserri batek ura, argia eta bidea behar ditu derrigorrez. Norbait hiltzen zenean, bizilagunak baserrira joaten ziren. Gero elizara eta kanposantura eramane behar zen gorpua.

368. Lan arazorik ez zen egon garai batean (AME-019/027)

Kalera bizitzera joan ziren lau senide eta diru gehiago irabazten hasi ziren. Lan asko zegoen garai hortan. Hainbat enpresa eta lantegi aipatzen ditu.

369. Dantzalekura Zarautzera (AME-019/028)

Dantzaleku oso gutxi zegoen garai batean eta Zarautzera joaten ziren denak. Neskei dantza eskatzen zioten.

370. Azpiroz gaineko dantzalekua (AME-019/030)

Azpiroz gainean bazegoen Ameriketan egondako baten zabaldu zuen dantzalekua.

371. Dantzalekuak (AME-019/031)

Tolosan ezagutu zuen emaztea, bertako dantzetan. Belauntzan ere bazegoen dantzarako leku bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com